



JARDUEREN OROITZA TXOSTENA

2025

aurkibidea

00	SARRERA	02
01	IKERLANAK	04
02	ZABALKUNDEA ETA ARGITALPENAK	05
03	BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK	07
04	<i>HERMES</i> , PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA	08
05	GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA	11
06	EUSKARA	29
07	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA	30
08	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA	41
09	SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA	64
10	BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK	67
11	EMAITZEN BALORAZIOA	69
12	HIZKUNTZA ETA GENERO POLITIKEN ADIERAZPENA	70
13	ERANSKINA: 2025ean EGINDAKOAK	71

00 SARRERA

2025. urtea jarduera biziko ekitaldia izan da Sabino Arana Fundazioarentzat, erakundeak darabiltzan lan-ildoak sendotu ditu eta Euskal Herriaren historia, memoria eta pentsamendua zaintzeko, aztertzeko eta zabaltzeko erreferentziatzko erakunde gisa duen eginkizuna berretsi du. Urtean zehar, Fundazioak, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiarekin eta Euskal Abertzaletasunaren Museoarekin batera, programazio zabala eta askotarikoa garatu du, hiru ardatz nagusiren inguruan egituratua: ondare historikoaren ikerketa eta kontserbazioa, kultur dibulgazioa eta eztabaida publikoaren sustapena, eta memoria kolektiboaren gizarte- eta erakunde-hedapena.

Ikerketaren eta kontserbazioaren esparruan, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak funtsezko lana egiten jarraitu du balio historiko handiko dokumentu-funtsak antolatzen, sailkatzen eta deskribatzen. Erakunde politikoetatik nahiz norbanakoen dohaintzetatik datozen artxibo berriak sartzeak eta tratatzeak, bai eta erbesteari, Gerra Zibilari, lehen Eusko Jaurlaritzari edo euskal nazionalismoaren figura nagusiei lotutako funtsezko funtsen antolamenduan aurrera egiteak ere, agiritegiaren eginkizuna indartu dute, dokumentu-ondare bakarraren bermatzaile gisa. Liburutegiaren eta Hemerrotekaren etengabeko hazkundera gehitu behar zaio horri, deskribapen-tresnen hobekuntza eta ikertzaileei, erakundeei, komunikabideei eta herritarrei etengabe ematen zaien arreta, jasotako kontsulten gorakada nabarmena izan dela. Lan isil eta zorrotz hori da Fundazioaren gainerako jardueraren oinarria.

Aldi berean, **Euskal Abertzaletasunaren Museoak** kultura-bitartekotza, hausnarketa eta belaunaldien arteko topaketa sustatzeko eginkizuna sendotu du. Hitzaldi, gaikako ziklo, aurkezpen, maisutza-eskola eta sorkuntza garaikideari lotutako jardueren bidez, EAMk jakin izan du memoria historikoa euskal gizartearen egungo erronkekin uztartzen. 2025eko programazioak kultura, diseinua, musika, literatura, diaspora, kirola edo berrikuntza jorratu ditu, betiere nortasuna, sormena eta mundura zabaltzea uztartzen dituen begirada batetik abiatuta. Arreta berezia merezi dute gazteen talentua eta proiektu ekintzaileak ikusarazteko zikloek, memoriaren, orainaren eta etorkizunaren arteko lotura indartuz.

Zabalkundeari eta hedapenari dagokionez, Sabino Arana Fundazioak ezagutza historikoa publiko ugariengana transmititzeko konpromisoari heldu dio. Komunikabideekiko etengabeko lankidetzari esker, urteurrenak, biografiak eta gertaera historikoak hurreratu zaizkie herritarrei, batez ere «Historias vascas» atalaren bidez, irrati eta telebistako elkarrizketen bidez eta webguneko eta sare sozialetako edukiak eguneratuz. Dibulgazio-lan hori indartu da argitalpen berrien edizioari eta Hermes aldizkariari esker; izan ere, 2025ean garrantzi bereziko mugarri eta eztabaidei eskainitako hiru ale monografiko kaleratu dira: José Antonio Ardanza Lehendakariaren jarauntsia, EAJ-PNV alderdiaren 130. urteurrena eta euskararen eta migrazioen arteko harremana euskal gizarte anitzean.

Era berean, gogoeta- eta eztabaida-jarduera bizia izan da amaitu berri den urtean, garrantzi historiko, politiko eta sozial handiko gaiak jorratu dituzten mintegiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatu direla. Fundazioak elkarrizketa plurala, zorrotasun intelektuala eta konpromiso etikoa azalertzeko guneak sustatu ditu hainbat gai jorrotuta, hala nola artxibo eta memoria demokratikorako sarbidea, nazioarteko lankidetzaren erronkak, zaintza, genero-berdintasuna, adimen artifiziala edo frankismoaren legatua. Jarduera horiek guztiek Sabino Arana Fundazioaren bokazioa berresten dute pentsamendu kritikoa eta gizartearen parte-hartzearen foro ireki gisa.

Nabarmentzekoak dira 2025. urtean egin diren **oroitzapen-ekitaldiak eta urtemugak**, programazio oparoa osatu baitute: EAJ-PNV alderdiaren sorreraren 130. urteurrena, Ardanza Lehendakariaren inbestiduraren 40. urteurrena, Bigarren Mundu Gerraren eta Gernika Batailoiaren amaieraren 80. urteurrena, Euzko Abendaren Ereserkiaren 120. urteurrena edo Francoren heriotzaren 50. urteurrena. Urteurren horiek, oroitzeko eta omentzeko ez ezik, gertaera horien esanahia gaurkotzeko ere balio izan dute, orainaldiko erronken argitan.

Azkenik, 2025eko balantzeak agerian uzten du Fundazioaren **prestakuntza- eta gizarte-konpromisoa**, hau da, bekadunak eta praktiketako ikasleak hartzea eta tutorizatzea, unibertsitateekin eta kultura-erakundeekin lankidetzan aritzea, eta erakunde-sareak indartzea, bai Euskadin, bai Estatuan, bai nazioartean.

Oro har, 2025ean, indartu egin dira Sabino Arana Fundazioaren, Agiritegiaren eta Museoaren jarduerak, memoria historikoa zaintzeko, kultura zabaltzeko eta euskal gizarte plural, demokratiko eta iraganaz kontzientea denaren zerbitzura dagoen pentsamendu kritikoa eraikitzeko funtsezko zutabe gisa.

01 IKERLANAK

Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela hamabost urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharrak egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre Lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

Artxibo-funtsen antolaketa:

- a) Bermeoko EAJ-PNV alderdiaren udal-antolakuntzaren artxiboa, 1970-1990.
- b) Euzko Gudarosteko Artxiboaren lehenengo zatia.
- c) Jesus Maria Leizaola funtsa, 1937 eta 1948 arteko dokumentazioarekin.
- d) Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren Funtsa, 1989 eta 1998 artean Eusko Jaurlaritzan izandako jarduera eta EAJ-PNVren EBBrekin izandako harremanari lotutako dokumentazioa jasotzen duena, 1989 eta 1997 bitartean egindako bileren, gutunen eta abarren berri ematen duela.
- e) EAJ-PNVren Kanpo Batzordeak 1978 eta 2000 artean sortutako dokumentazioaren lehen sailkapena eta deskribapena.

2) Norbanakoen dohaintzetatik datozen funtsei dagokienez, ondoko artxiboetako funtsak behar bezala instalatu, erregistratu eta deskribatu dira:

- Camino familia (Sodupe)
- Madariaga Agirre familia
- Abasolo L. Amezaga familia (Iruñea)
- Arzelus Toledo familia, 1938-1979
- Basterra Ariño familia, 1936-2000
- Bilbao Sakona familia (Bermeo)
- Iñaki Anasagastik dohaintzan emandako agiri historikoak
- Julio Jauregi Alonso 1988-2025 (Oiartzun)
- Joaquin Egia Unzeta, 1940-1948 (Londres)

3) Urteko lehenengo hilabeteetan, **Euskadiko Artxibo Historikoaren dokumentazio historikoaren antolaketa eta deskribapena** amaitu zen, kontratu bidez. Jon Bilbao, Jose María Sota Zorraquin (Sota funtsa) eta lehen Eusko Jaurlaritzaren serieak izan dira funtsak.

02 ZABALKUNDEA ETA ARGITALPENAK

Artikuluak DEIA egunkariarentzat:

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatu ditugu DEIA egunkariarentzat 2025eko ekitaldian, *Historias vascas* deritzon sailean.

Amaitu berri den ekitaldian, ondokoen ekarpena jaso dute Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak: Jabier Aspuru (2), Gorka Pérez de la Peña Oleaga, Andrés Urrutia Badiola (4), Gorka Ortega Ortiz (2), Paula García Bujedo, Óscar Álvarez Gila (2), Begoña Garrido (2) y Oskar Gorroño, Aitor Miñambres (3), Luis Ángel Gaintza Pina y José Luis Orbe Dañobeitia, José Julián Bakedano Sarrionandia, Ernesto García Fernández, Alberto Angulo Morales, Joseba Agirreazkuenaga, Eduardo J. Alonso Olea (2), Jon Mentxakatorre Odriozola, Manuel Solórzano Sánchez, Asier Madarieta Juaristi, Patxi Agirre Arrizabalaga y Mikel Lekaroz Garikano, Fernando Mikelarena (2), Luis Bilbao Larrondo (2), Alberto Santana Ezkerra, Andres, Aritz Ipiña, Ernesto García, Aitor Goitia, Amaia Rojo, Mikel Gómez Gastiasoro, Luis de Guezala, Iñaki Goigana, Gexan Etxabe, Iñaki Galdós eta Andres Urrutia.

Kolaborazioak irratietan

Fundazioaren webgunean, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin zerikusia duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratu ohi ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakusten ditugu; liburutegiko eta hemerrotekako aleak ikusgai jarri; gaur egungo gizarteari interesatzen zaizkion gaiei buruzko hitzaldiak partekatzen ditugu; ikus-entzunezkoak; modu batera edo bestera Euskadiko historian eragina izan duten gai historiko eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak eskaintzen ditugu; gure historialariek irratian egindako elkarrizketak...

Sailak hiru atal dauzka:

- Urteurrenak, biografiak, gertaerak eta pertsonaia historikoak, erreportajeak... Atal hori egunero «elikatzen» da, astelehenetik larunbatera, eta egun batzuetan bi albiste ere igotzen dira, lotutako argazki (mila inguru) eta Sabino Arana Fundazioak koordinatu edo kudeatu duen gaiari buruzko PDF eta/edo erreportaje-audioekin batera.
- DEIA egunkarian, *Historias vascas* sailean argitaraturiko erreportajeak.
- Bideoak: Euskal gizartea XXI. mendean. Atal honetan, historialariek eta hainbat arlotako adituek (antropologia, kultura, ekonomia, soziologia...) astero-astero ekartzen dizkigute Euskal Herriaren historiako gertakari garrantzitsuen eta protagonisten inguruko testuak. Gure kultura, nortasuna eta iragana eraikitzeko ibilbidea.

2025ean, **223** urteurren argitaratu ditugu sail honetan, **43** erreportaje DEIA egunkarian, *Historias vascas* sailean, eta **47** bideo.

Argitalpenak

Jonan Zinkunegiren *Arzelus Arrieta'tar Amale. Nere oroimenak* liburua



Sabino Arana Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak *Arzelus Arrieta'tar Amale. Nere oroimenak* izeneko liburua aurkeztu zuten martxoaren 19an, Donostiako Aiete Jauregian. Jonan Zinkunegi Arzelus, Amale Arzelusen semea, dugu liburuaren egilea. Liburuak bi bertsio ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, baina bigarrena ez da lehenengoren hitzez hitzeko itzulpena.

Liburua taxutzeko, Amalek berak idatzitako *Nere oroimenak* eta *Nere ekintzak* testuak erabili ditu Jonan Zinkunegik, eta bere ekarpenez osatu du lana.

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak argitaratu du liburua, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, eta euskaraz aritu lehen lehen irratiesatariaren bizipenak jasotzen dira bertan.

Geroago, maiatzaren 6an, Bilbon ere aurkeztu zuten lana, Fundazioaren egoitzan.

03 BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

Gizarte-ikuspegiaz denaz bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu. Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ildo honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dutela gure instalazioetan.

2025ean, 12 bekadunek jaso dute prestakuntza Sabino Arana Fundazioan; horietako **bederatzik** museoan eta **hiruk** agiritegian.

Jardueron helburuak: gazteen beharrei erantzutea, gazte horien garapen pertsonalerako eta profesionalerako beharrezko tresnak izan ditzaten, eta lan-esperientziara hurbiltzen laguntzea.

04 HERMES

PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

2025ean, *Hermes* aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 80., 81. eta 82. zenbakiak.

80. zenbakia: Ardanza Lehendakariaren jaraunsletza gogoan *Hermesen*



Jose Antonio Ardanza Garro Eusko Jaurlaritzako lehendakari aurrenekoz izendatu zutenetik 40 urte bete direla eta, zendu zenetik urtebetera, *Hermes* aldizkariak gai gakarreko ale batean jaso nahi izan ditu Ardanzaren gobernuetako ordezkari politikoen, kazetarien eta Lehendakari ohiaren garai hartako kolaboratzaileen oroitzapenak.

Orriotan, Ardanza Lehendakariaren lorpenei buruzko kontakizunak Herri honen historiaren eta etorkizunaren funtsezko alderdi baten berri ematen du. Alabaina, lorpen horien atzean, badira Ardanzaren nortasunaren hiru ezaugarri, utzitako ondareari jasa ematen diotenak. Hasteko eta bat, ekonomiaren inguruko prestakuntza aurrekaririk gabeko krisi bati aurre egiteko eta, industriaren errautsen gainean, gizarte-eredu berria suspertzeko, are kulturalago, europarzialeago eta oparoagoa. Bigarrenik, agintariaren ikuspegi humanista eta kristau- heziketari lotutako printzipioak; horiek bultzatu zituzten, aurrendaritza sendoz Europan, elkartasun-izaera zerien legeak, gizarte-desberdintasunak eta bidegabekeriak alboratuta, elkarrekin eta batera haztea helburu zutenak. Eta, azkenik, gizartearen zati baten ameskeriari aurre egiteko ahalegina, beste biak bezain garrantzitsua, sasoi hartan, indarkeria endemikoa, berdinen arteko bizikidetzaren odolez lohitzen zuena, zabal onartzen zutelako gutxi batzuek.

Jon Azuak, Juan Ramon Guevarak, Juan Mari Atutxak, Mari Karmen Garmendiak, Bingen Zupiriak, Ana Urriagak, Ramon Jauregik eta Luis Aizpeoleak Ardanzak urte horietan egindako lana eta nortasuna aletu dituzte.

Horrez gain, egungo Lehendakari Imanol Pradalesi egindako lehen elkarrizketa jasotzen du *Hermes* aldizkariaren 80. zenbakiak; Pradalesek ere Ardanzari buruzko gomutaz eta egungo egoeraz berba egiteko baliatu du.

81. zenbakia: EAJ-PNV alderdiaren sorreraren 130. urteurrena

Hermes, Sabino Arana Fundazioak argitaratutako pentsamendu eta historia aldizkariaren 81. zenbakia Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ-PNV) sorreraren 130. urteurrenari buruzkoa da. Zenbaki berezi honetan, aldizkarira bildu diren kolaborazioek EAJk historian izan dituen bilakaera, lorpenak eta erronkak jorratzen dituzte, bai eta horiek guztiek Euskal Herriaren aurrerabideari eta eraikuntzari egin dioten ekarpena ere.

Euskal Herria gizarte oparoa, solidarioa, anitza eta nortasun jatorrekoa izan dadin eta euskal lurraldeari estuki atxiki dakion, mende batetik gorako aldian egin den elkarlaneko talde-lanaren emaitzaz gogoeta egitea du helburu zenbakiak. Ale berezi honen xedea da, orobat, EAJ-PNV alderdiko kide izan diren eta euskal komunitatearen garapenean ekarria egin duten pertsona guztien ahalegin eta konpromisoaren arrastoa jasota uztea, bai egungo belaunaldientzat, bai etorkizunekoentzat.

EAJren oraintsuko historian garrantzi handia izan duten pertsonak kolaboratu dute zenbaki honetan, besteak beste: Aitor Esteban, EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidentea (elkarrizketa); Andoni Ortuzar, EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidente ohia; Iñigo Urkullu, Lehendakaria (2012-2024); Oihane Agirregoitia, Europako Parlamentuko kidea; Joseba Egibar, EAJ-PNV alderdiaren GBBko presidente ohia eta EBBko kide ohia; Pedro Luis Uriarte, ekonomialaria eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburua lehen Eusko Jaurlaritzan; Begoña Amunarriz, legebiltzarkide ohia; José Manuel Bujanda, Eusko Jaurlaritzako kidea hainbta legegintzalditan; Mikel Aizpuru, EHUko Historia Garaikideko katedraduna; Arantzazu Rojo, Politika Zientzietako, Soziologiako eta Antropologiako lizentziaduna. EAJ-PNV alderdiaren izeneko zinegotzia Hondarribian.



Zenbakiak Aitor Esteban EAJren EBBko presidenteari eginiko elkarrizketa dakar. Buruzagiak Eusko Alderdi Jeltzalearen orainari eta etorkizunari buruzko ikuspegia ematen du elkarrizketan, bai eta alderdiak egungo euskal politikan daukan funtsezko eginkizunaz gogoeta egin ere.

82. zenbakia: Migrazioa. Bilakaera, prospekzioa eta hizkuntzen trataera



82. zenbakian, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako *Hizkuntza harrerarako ardatz batzuk* mintegiko txostenak eta ekarpenak jasotzen dira, bai eta migrazioen, hizkuntzaren eta Euskadi garaikidearen integrazioaren arteko harremanari hainbat ikuspegitatik heltzen dioten beste lankidetzak ere.

Hermesen azken zenbakiaren orrialdeotan, unibertsitate-, erakunde- eta gizarte-esparruetako adituen gogoetak jasotzen dira, eta horiek guztiak eztabaida publikoa aberasten laguntzen dute datuekin, testuinguru historikoarekin eta etorkizuneko proposamenekin.

Kolaborazioen artean, hauen lanak aipatu behar ditugu: Julia Shershneva, Eduardo J. Ruiz Vieyetz, Liván Usallán Méndez, Xabier Aierdi Urraza, Eguzki Urteaga, Mario Zapata, Iker Barbero, Alberto Galindo Hernández eta Larraitx Zumeta Sánchez, bai eta migrazioaren eta harrera linguistikoaren eta sozialaren erronken ikuspegi zabala eta askotarikoa osatzen duten ekarpen kolektiboak eta testigantzak ere.

Gainera, aniztasunari aurpegia jartzen dioten eta lehen pertsonan kontaktzen diren begiradak eta bizipenak eskaintzen ditu zenbakiak, hala nola Valentyna Zaichenko,

Aleksandra Zak eta Boubacar Diouf-enak, hausnarketaren izaera gizatiartasuna eta hurbiltasuna landuz.

Zenbakiaren eduki nagusietako bat Nerea Melgosa Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuari egindako elkarrizketa da. Bertan azpimarratzen duenez, «familia migratzaileek euskara beren etorkizunerako tresnatzat hartzen dute, nahiz eta batzuetan ez izan ikaskuntza hori laguntzeko baliabiderik». Elkarrizketan, Melgosak gogoeta egiten du harrera-politikez, gizarte-kohesioaz, aukeraberdintasunaz eta euskarak gizarteratzeko eta herri-proiektu partekatu bat eraikitzeko duen zeregin estrategikoaz.

Zenbaki hau kaleratuta, Hermesek euskal gizartearen erronka handiei buruzko pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa lasaia sustatzeko jasa berresten du, errealitate konplexua eta etengabe bilakatzen ari dena ulertzeko gakoak eskainiz, zorrotasunetik, konpromiso demokratikotik eta begirada humanistatik abiatuta.

05 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA

MINTEGIAK

5.1 «Agiriak, diktaturaren gainerako biktimak Franco hil eta 50 urtera»



Aitor Esteban EAJ-PNV alderdiaren Euzkadi Buru Batzarreko presidentek Sabino Arana Fundazioak antolatutako «Agiriak, diktaturaren gainerako biktimak Franco hil eta 50 urtera» deritzon mintegia ireki zuen azaroaren 12an. 1968ko Sekretu Ofizialen Lege Frankistaren inguruan eman zuen hitzaldian, Estebanek gogorarazi zuen «EAJ-PNVk eskubide zibil eta demokratikoen defentsaren buruan» jardun duela azken urteotan Madrilen, eta Sekretu Ofizialen Legearen erreforma aurkeztu zuela 2016an lehen biderrez. «Lege frankista horren erreforma defendatu dugu Kongresuko hemizikloan lau aldiz ia hamar urte hauetan. Espainiako Estatuak bidea urratu behar du gardentasunaren arloan, eta epe batzuk ezarri dokumentuak desklasifikatzeko eta legeria gure inguruko herrialdeetako legeriaren arabera egokitzeko; nahitaezkoa da».

Unibertsitateko irakasleek, artxibistikako teknikariek, ikertzaileek eta politikariek parte hartu zuten jardunaldian.

Josep Cruanyes, 2002an frankismoak konfiskatutako dokumentuak Kataluniako Generalitatera itzul daitezzen lan egiten duen Comissió de la Dignitat elkarteko presidentek berretsi zuen beharrezkoa dela oraindik ere Salamancako artxihoan gordetzen dituzten dokumentuak «behin betiko» transferitzea.

Fernando Mikelarena, historialari eta Zaragozako Unibertsitateko irakasle titularrak «frankismoaren zigorgabetasunari buruzko dokumentaziorako eta ikerketarako sarbideak dituen mugak» izan zituen hizpide. Ildo horretan, oztopo nagusiak aipatu zituen. Sergio Gálvez Estatu politika gisa erabili zen konfiskazioaz mintzatu zen; Javier Bucesek Euskadiko errepresioa ikertzeko zailtasunak jorratu zituen; eta Eduardo Jauregik Salamancan konfiskatutako euskal artxiboen kasua azaldu zuen.

5.2 Lankidetzari buruzko mintegia: «Garapena finantzatzea tokiko/lurraldeko ikuspegiz. Sevillako 2025eko Goi-bileraren estatuz azpiko dimentsioa»

Ekainaren 10ean, Sébastien Vauzelle, Garapen Iraunkorreko Helburuetan interesa duten tokiko alderdien interesdunen parte-hartzea bultzatzen duen Nazio Batuen Erakundearen 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritzako zuzendariak eta Javier Cortés eLankidetzeta-Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak garapenaren finantzaketa tokian tokitik sustatzeko ahaleginak aztertu zituzten.

Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen topaldia, «Garapenerako finantzaketa tokiko/lurraldeko ikuspegiz. Sevillako 2025eko Goi-bileraren estatuz azpiko dimentsioa» izenburuaren ildoan, garapenerako nazioarteko lankidetzan esperientzia duten profesionalak, lankidetzeta-agentzia eta -erakundeetako arduradunek, unibertsitateko irakasleek eta abarrek parte hartu zuten jardunaldian.

Mintegiaren helburua ekainaren 30etik uztailaren 3ra Sevillan egin zen Garapenerako Finantzaketaren IV. Goi Bileran jorratu ziren proposamenetako batzuk aurkeztea izan zen, garapenaren agendaren eta bere finantzaketaren erronketan estatuz azpiko eragileek egiten duten ekarpena kontuan har dadin.



Horregatik, Vauzellek «finantzaketa tokiko esparrutik areago bideratzearen» aldeko apustua egin zuen, horrek «gizakien bizitzan eragin handiagoa izango duelako eta

garapen iraunkorren nabarmen aurrera egiteko beharrezkoa den eraldaketa sistemikoari eragingo diolako».

Beste alde batetik, Javier Cortésekin adierazi zuenez, «garapen iraunkorraren erronkei ikuspegi zabaletik heldu behar zaie, aberastasuna dimentsio ekonomiko-finantzario bakarren eta epe laburreko etekinaren arabera neurtzen duen hazkunde-eredu baten harira, definizio horretan gizarte- eta ingurumen-dimentsioa txertatzen duen eta etika eta pertsonak erdigunean jartzen dituen eredu baterantz bilakatuta».

5.3 Mintegia Oreki Fundazioarekin lankidetzan

Komunitategintzaz, zaintzaren oinarri sendoen bila



««Komunitategintzaz, zaintzaren oinarri sendoen bila» izenburuaren ildoan, Sabino Arana Fundazioak eta Oreki Fundazioak gogoeta egin zuten maiatzaren 30ean zainketak jasotzen dituzten pertsonen, haiekin lan egiten dutenen, familien eta haien ingurune osoaren inguruan. Hain zuzen ere, zainduak izateko beharrezkoak eta besteak zaintzeko gizatasunagatik, zaintzak aparteko balioa du pertsonaren garapen duinean, askean eta osoan. Zaintzak arreta publikoa beharrezkoa du, hezkuntzak, osasunak, segurtasunak edo ekonomiak behar duten

modu berean. Gainera, gizarte-aldaketek eta gizarte-bilakaerak erronka berriak ekarri dizkigute, eta horiei erantzun behar diegu bidea urratzeko eta etorkizun hurbilari begiratzeko; bada, gure gaurko gizarteak zerbait jorratu behar badu, gainerako arazoak gutxietsi gabe, zaintza jorratu behar du.

Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburu Nerea Melgosak eman zion hasiera jardunaldiari. Gizarte-politiken eraldaketaz hitz egin zuen, eta «aurreko ongizate-estadia eraldatzen duen gizarte-politika berria» aldeztu zuen, etorkizunari begira, zerbitzu publikoak indartzea lehenetsiz, etorkizuneko eraldaketetan inbertsioak eginez eta komunitatearen zentzua indartuz.

Ondoren, Mari Karmen Garmendia Matia Fundazioko presidentea, Martin Zuñiga Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak eta Sergio Murillo Igarroko Taldeko Negozio Garapen eta Prozesu Giltzarrien zuzendariak jardun zuten.



Erakundeetako hogeit bat ordezkari, unibertsitateetako eta beste erakunde batzuetako kideek parte hartu zuten topaldian eta ondoko lantaldeetan, ondorioak ateratzeko helburuz.

5.4 Ehunen kontserbazioaren VI. jardunaldiak, maisutza-eskola (Euskal Abertzaletasunaren Museoaren atalean).

5.5 Prebentziozko kontserbazioaren VI. jardunaldiak, maisutza-eskola (Euskal Abertzaletasunaren Museoaren atalean).

HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK

5.6 Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren kargu-hartzearen 40. urteurrena



Jose Antonio Ardanza Garro Eusko Jaurlaritzako Lehendakari izendatu zutenetik 40 urte bete direla eta, otsailaren 26an, Ardanzaren gobernuetako ordezkari politikoei eta EAJ-PNV alderdiaren orduko EBBko kideei omenaldia egin zioten.

SAFeko presidentea Mireia Zaratek hasierako agurra egin ostean, bideo bat eman zen eta, bertan, Izaskun Bilbaok Euskadi eraldatzeko erabakigarria izan zen pertsona baten zeregina eta lana gogoratu zituen Europako

Parlamentuan, Ardanza Lehendakaria hil zen aste berean (2024ko apirila). Josu Ortuondok, garai hartako EBBko diruzainak, Ardanzaren izendapena EAJ-PNV alderdiaren barruan zelan hartu zen azaldu zuen. Ardanzaren idazkari pertsonalak, Pili García de Salazarrek, egunerokoa Lehendakariaren alboan nolakoa zen deskribatu zuen.

Juan Ramon Gebara, garai hartan, Ardanzaren lehen agintaldian Justiziako sailburu izan zenak, erakundeen eta autonomia-erkidegoaren garapenaz hitz egin zuen, bai eta sortutako egitura berriei, kanpo-ekintzaz eta abarrez ere.

Mari Karmen Garmendiak, Ardanzaren gobernuko Kultura sailburu izandakoak, euskarari 80ko eta 90eko hamarkadetan



emandako bultzada nabarmendu zuen, bai eta Lehendakariak berdintasunaren arloan erakutsitako lidergoa ere. Eta Jon Imanol Azuak garai hartan garatu zen politika ekonomiko eta industrial berritzaileaz hitz egin zuen.

Ardanzaren alargun Gloria Urriaga, Nagore alaba, Aitor semea eta Ardanza Urriaga sendiko hainbat kide bertan zirela, euskal politika, kultura eta gizarteko ordezkari ugari izan ziren ekitaldian.

5.7 Maurice Ravel: euskal arima zeukan musikagilea



Joan den martxoaren 6an, Itxaso Sainz de la Maza piano-jotzaile, Irakaskuntza Plangintzako zuzendariorde eta Musikeneko irakasleak Maurice Ravelen sorkuntzan sustraiek eta euskal kulturarekiko harremanek izan zuten benetako eraginaz jakin eta ezagutzera gonbidatu gintuen, musikagile lapurtarraren jaiotzaren 150. urteurrenean.

«Maurice Ravel eta Euskal Herria» izeneko ikerlanaren egilea izanik, Sainz de la Mazak adierazi zuen konpositore lapurtarrak «euskal dantzen doinu bereizgarriak erabili zituela, eta, are gehiago, euskal ahozko tradizioaren molde literarioetara hurbildu zela». Era berean, gogoratu zuen «euskal kulturari egin zion omenaldirik handienetakoa euskal rapsodia izan zela, Zazpiak bat izenburua izan behar zuena, zazpi euskal lurraldeen batasunari aipua eginez, baina Lehen Mundu Gerrak eten zuen lana». Funtsean, Sainz de la Mazak Ravelen baitan datzan euskal sustraia erakutsi zigun, musikariaren nortasunean eta musikan horrenbesteko eragina izan zuena.

5.8 «Mar de Sami 2020 Laponia. Finlandia» dokumentalaren emanaldia



Zigor Egia Euskal Mendizale Federazioko presidenteordeak samien lurraldearen zati bat erakutsi zigun martxoaren 11n, Finlandiako Inari aintzira, hain zuzen ere. Berak eta beste bi mendizalek, Rizos Amatek eta Manolo Taibok, eskiak eta pulkak (lerak) erabiliz zeharkatu zuten aintzira 2020an. Inari aintziraren handitasuna (1.000 kilometro koadro baino gehiago ditu), lakuaren azalera izoztua, bertako 3.300 uharte baino gehiago eta aurora borealak ikusteko aukera direla eta, bidaia esperientzia ahaztezina izan zen.

5.9 Bejingeko Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren 30. urteurrena

1995. urtean, Arantza Zugasti eta Sonia Hernando kazetariak eta Txaro Beobidek parte hartu zuten Pekin edo Beijing hirian egin zen Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian. Topaketak mundu mailako genero berdintasunaren aldeko borrokaren oinarriak ezarri zituen. 30 urte geroago, Zugastik, Beobidek eta Hernandok gurekin partekatu zuten orduan erdietsi ziren aurrerapenei buruzko ikuspegia; nolana ere, erabateko berdintasuna lortzea helburu, oraindik ere gainditu beharreko erronka garrantzitsuak eta oztopo ugari daudela berretsi zuten.



5.10 Caracasko El Paraisoko Euskal Etxearen 75. urteurrena

Gerra Zibilaren ondotik, Euskadin, zapalkuntza politiko eta sozialaz gain, zapalkuntza ekonomikoa ere pairatu zuten herritarrek, eta, horrek eraginez, euskaldun askok kanpora emigratu zuten. Atzerriratu ekonomiko horietako askok Venezuela hautatu zuten, eta han bat egin zuten iheslari politikoeekin. Denen artean, El Paraisoko Euskal Etxea altxatu zuten, euskal arimak «munduan fruitua» eman zezan. 75 urte igaro dira ordutik.



Joan den martxoaren 20an, euskal diasporak Venezuelara eramandako pertsonak bildu genituen Fundazioaren egoitzan: Ibane Azpirixaga eta Pedro Javier Arriaga (bi-biak ZOOM bidez Caracasetik) eta Jon Mikel Olabarrieta, Nere Olabarrieta, Gonzalo Attias eta Estepan Aldamizetxebarria, Bilbon. Guztien testigantzek euskal diasporaren ezinbesteko eta funtsezko eginkizuna erakutsi ziguten.



5.11 Bizi Cycle Tours, txirrindularitza, gastronomia eta kultura uztartzen dituen nahasketa liluragarria

Virginia Berasategi atleta ohiak, 2010eko Sabino Arana saridunak, martxoaren 26an aurkeztu zuen SAFen bere proiektu berria eta berritzailea: Bizi Cycle Tours. Euskadiko paisaiak, kultura eta gastronomia

bizikleta ibilbideak direla medio ezagutzea helburu duen ekimena da.

Proiektuak lagunarteko txirringarritzarekiko zaletasuna sustatzen du, plater tradizionalak, bertoko edariek kultur jarduerak eta ekintza ludikoz gozatzuta; Virginia Berasategik berak entrenatzen emandako urteetan egin dituen ibilbideak dira, aurkintza eta bazter xarmangarriak beterikoak. Hori guztia modu pertsonalizatuan eskaintzen da, kirolari profesional ohien, gidarien, bideo-grafioen, laguntzaileen, fisioterapeuten eta abarren eskutik.

5.12 Hitzaldi-zikloa: «Aurrera doan Herria. EAJ-PNV alderdiaren 130. urteurrena» (hiru hitzaldi)



1895eko uztailaren 31n, Sabino Arana Goirik EAJ-PNV alderdia sortu zuen euskal nazioa eraikitzeko eta askatzeko tresna gisa. 130 urte igaro dira orduetik, eta euskal belaunaldiak erakunde politiko horren historia idatzi dute etengabean.

Urteurrena ospatzeko, «Aurrera doan Herria. EAJ-PNV alderdiaren 130. urteurrena» izenburuaren ildoan, euskal abertzaletasunaren historiako hiru aldi nagusiri heldu diegu: hastapenak, II. Errepublika, eta alderdiaren iragan hurbila, oraina eta etorkizuna.

Joseba Agirreazkueña eta Luis de Gezalaren eskutik hasi genuen zikloa, gertakari horren aurretik gure herrian zegoen egoera aztertuz eta Sabino Aranak Euzkadiren desagerpena saihesteko eta aberriaren askapen zein eraikuntza nazionalaren alde borrokatzeko hasierako euskal abertzaletasuna zelan antolatu zuen aleturik.

Mikel Aizpururen eskutik, berriz, Espainiako II. Errepublikaren ingurumari historikoari heldu genion. Aldi horretan, monarkiarekin baino askatasun handiagoa baliatuta, Euzko Alderdi Jeltzalea sendotu zen, mugimendu eta komunitate politiko zabal gisa ez ezik, gizarte eta kultur mugimendu eta komunitate handi gisa ere. Armeak eragotzi egin zuten Alderdi Jeltzalearen lan baketsu eta demokratikoa, estatu-kolpe eta gerra krudel baten ostean diktadura frankista ezarri zutenek bultzatuta.

Altxamendu militarren eta Gerra Zibilaren ondoko diktadura frankistaren 40 urteko aldi luzea amaitu eta gero, Sabino Aranak sortu zuen alderdiak diseinatu zuen azken hamarkada hauetan Euskadik egin duen bidea: ideal abertzaleen aldarrikapen baketsuaren, demokraziaren eraikuntzaren, euskal



erakundeen berreskurapenaren eta Herriaren eraldaketa ekonomiko, sozial eta kulturalaren bidea.

Azkenik, ekainaren 12an, Aitor Estebanek, alderdiaren Euzkadi Buru Batzarreko presidentek, EAJ-PNVk datozen urteetarako euskal aberriarekin hartu duen konpromisoaren oinarritzko ildoak azaldu zituen.



«Gure herriaren norabidea bideratzeo eta taupadari oratzeko beharrezko tresna gara». Esaldi horrekin laburbildu daiteke Aitor Estebanek hitzaldi-ziklo honi amaiera emateko erabili zuen adierazpena. «Iparrorratza gara, norabidea argia dugulako, eta taupada gara, uneko unea interpretatzen dugulako eta

Herriaren abiadari eusten diogulako. Euskadiren iparrorratza eta taupada izan gara, eta hala izaten jarraituko dugu», adierazi zuen EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidentek.



5.13 *Trasatlántica* konpainiaren ontziak: gerrako umeak eta antibiotikoak erabiltzeko aukera

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoa antolatzen duen «ltsasoa, berdintasun-lurraldea» zikloaren barruan, apirilaren 8an, Juan Carlos Díaz Nabigazio Zientzien Kanarietako Akademiako presidentek eta Javier Garaizar Mikrobiologiako doktoreak Gerra Zibilean eta gerraostean *Trasatlántica* konpainiako itsasontziek egindako lan humanitarioa jorratu zuten.

Kompainiaren transatlantiko handi asko eta asko Sestaoko La Naval ontzian edo Bilboko Euskalduna ontzian tresnatu zituzten, eta gainera, gerra garaian, euskal diasporarekiko loturarena egin zuten, milaka ume euskaldunen ebakuazioa gauzatu zutelako tropa frankistek lurraldea berehala okupatuko zutelakoan eta, gerraostean, antibiotikoak ekarri zituzten eta gaixotasun infektzioen ziozko heriotza-tasa nabarmen murriztu zuten.



5.14 Bigarren Mundu Gerraren amaieraren 80. urteurrena eta Gernika batailoia

Apirilean, Point de Graveko guduaren 80. urteurrena gogoraraziko dugu, hau da, Bigarren Mundu Gerrako azkenetakoa eta Gernika batailoia Euzkadiko Gobernuak erbestean antolatutako eta gudariz osatutako unitate militarrek, parte hartu zuena.



Aitor Miñambres Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoaren zuzendariak hitzaldia eman zuen Sabino Arana Fundazioan, apirilaren 10ean. Bertan, batailoien historia azalduko du, orain dela 80 urte sortu zenetik Medoc eskualdeko borroketan parte hartu zuen arte.

Agirre Lehendakaria aliatuekin engaiatu zen hasiera-hasieratik, baina Euskadin jarrita zeukan helburua, Franco boteretik kentzeko eta demokrazia berrezartzeko ahal zuen guztia egin behar zuelarik. Horrela sortu zen Gernika Batailoia eta Miñambresek batailoien historia kontatu zigun «Erramu-koroak, haritz-hostoak. Gernika batailoien epopeia (1945)» izenburuaren ildoan.

5.15 Euzko Abendaren Ereserkiaren 120. urteurrena

Sabino Aranak asmatutako Euzko Abendaren Ereserkia Euskal Aberriaren ereserki nazional izendatu zuten duela 120 urte. Euskal abertzaletasunaren sortzaileak nazio eraikuntzari lorturik sortu zuen ikurretako bat izan zen, ikurrinarekin, armariarekin eta Euzkadi izenarekin batera. Jose Ignazio Ansorena konpositore eta txistulariak eta Xaguak txistulari taldeak (Aitor Arozena, Jon Ansorena eta Agustin Laskurain) gure ereserkiaren jatorria gogoratu zuten maiatzaren 8an eta gure ondare kultureko ezagunenetako batzuk interpretatu zituzten.



5.16 «Nazioarteko garapenerako lankidetzaren erronkak» (lau hitzaldi)

Lankidetzapolitikek mundu osoan, baina bereziki Hegoaldeko herrialdeetan, izan behar duten eginkizunari buruzko eztabaida lantzen laguntzeko, Sabino Arana Fundazioak hitzaldi-ziklo bat eta mintegi bat antolatu zituen. Bertan, Nazio Batuetako agentzietako ordezkariak, zeregin humanitarioa darabilten GKEetako kideak, garapenerako nazioarteko lankidetzarekin engaiatutako beste

eragile batzuek, unibertsitateetako irakasleek eta abarrek parte hartu zuten.

Lehenengo hitzaldian, maiatzaren 13an, gatazkan dauden herrialdeetako nazioarteko lankidetzari buruz hitz egin zuen Irantzu Mendia UPV/EHUko Hegoa-Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko zuzendari eta ikertzaileak Indarkeriak eta gerrek izugarri galgaten dute garapena, ekonomia- eta gizarte-egiturak suntsitzen dituzte eta herritarrek nekez gaintzen dituzten ondorio psikologikoak sorrarazten dituzte. GGKE ugari lanean ari dira Ekialde Ertainean, Sahelen, Afrikako erdialdean eta abarretan, baita ezkutuko edo ikusezin bihurtutako gatazkak gori-gorian dauden beste eskualde batzuetan ere.

Ekainaren 5ean, Irene Molerok, Euskadiko GGKEen koordinatzaile nagusiak, Giza Eskubideen ikuspegitik heldu zion gaiari.

«Helburua da lankidetzaren ekintza guztiek pertsona guztien giza eskubideak sustatu eta errespetatzea», adierazi zuen. «Horrek esan nahi du giza eskubideen ikuspegia txertatu behar dela lankidetzaren fase guztietan, plangintzatik ebaluazioraino, lankidetzaren proiektuek garapen-helburuak lortzeaz gain, pertsonen bizi-baldintzak hobetuko dituztela eta haien eskubideak babestuko dituztela bermatuz. Ikuspegi horretatik, pertsonak erdigunean jartzen dira eta beren garapenaren eragile nagusi bihurtzen dira», azpimarratu zuen Molerok.



Irailaren 25ean, Sébastien Vauzelle NBEko 2030 Tokiko Koalizioko Idazkaritzako zuzendariak eta Javier Cortes eLankidetzaren Eusko Jaurlaritzako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak garapenerako finantzaketa aztertu zuten tokiko ikuspegiaren

ildotik. «Tokikotik globalera: garapenerako lankidetzaren iraunkorren finantzaketa tokikotzea aldaketa-garai batean» izenburuaren harian, bi adituek nazioarteko finantza-sistema eredu inklusiboago eta eraginkorrago baterantz bideratzeko beharrari heldu zioten, lurraldeen gaitasunak eta lehentasunak kontuan hartzen dituen eredu baterantz.

«Tokikorik gabe, globalak ez du funtzionatuko: garapen jasangarriaren finantzaketa lurraldeetan hasten da», adierazi zuen Sébastien Vauzellek.

«Lurraldeetatik bultzatutako konponbideetara bideratu behar ditugu baliabideak, erkidego bakoitzaren lehentasunak eta behar espezifikoak erantzuteko», baietsi zuen Javier Cortésekin.

Azken batean, bi adituek azpimarratu zuten tokiko eragileak aldaketaren funtsezko eragileak direla: «Haien eginkizuna aitortzea



funtsezkoa da finantzaketa inklusiboagoa, iraunkorragoa eta errealitatearekin konektatuagoa eraikitzeko», ondorioztatu zuten.

Eta urriaren 30ean, Gurutze Aizpurua *Mundu Bakean* ekimeneko Garapen Proiektuen koordinatzaileak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Gune Feministako kideak lankidetzaren erronkei buruzko hausnarketa egin zuen, ikuspegi feministatik. «Lankidetzaren feministak berdintasuna ez ezik, gizarte-eraldaketa ere bilatzen du. Kontua ez da emakumeak integratzea, baizik eta desberdintasuna sortzen duten egiturak aldatzea», adierazi zuen Aizpuruak.

«Nazioarteko lankidetzaren feminista Iparraldeko eta Hegoaldeko mugimenduen arteko aliantza bat ere bada, genero-justiziaren eta bizitzaren iraunkortasunaren aldeko borroka bera partekatzen baitute», azpimarratu zuen.

«Lankidetzaren tekniko edo asistentzialaren aurrean, feminismoak lankidetzaren eraldatzaileak proposatzen du, berdintasunean, zaintzan eta eskubideetan oinarrituta», aldarrikatu zuen *Mundu Bakean* programaren Garapen Proiektuen koordinatzaileak.

5.17 «La vida en pausa» dokumentalaren emanaldia



Dokumental horren bidez, maiatzaren 20an, Olaia Peñasen istorioa kontatu genuen. Olaia fibrosi kistikoak jotako paziente bat da eta hainbat transplante izan ditu. Olaia Peñasen kontakizuna fibrosi kistikoa pairatzen duten pertsonen erresistentziaren eta itxaropenaren adibide bikaina da; gaixotasun horren errealitatea eta organo-transplanteek duten garrantzia erakusten da dokumentalean.

Emanaldian, agerian geratu zen organoak ematea eta transplantatzea ez dela egintza mediko hutsa. Izan ere, eragin emozional eta psikologiko sakonak sorrazten ditu bertan nahasita dauden pertsona guztiengan: emaileak, hartzaiak eta familiak.

5.18 Adimen artifizialaren erronkak eta aukerak ikuspegi etiko eta humanistatik. Daniel Innerarity eta Humberto Bustinceraren arteko solasaldia (2 topaldi, Irueñan eta Bilbon)

Daniel Innerarity, Filosofia Politikoko katedraduna, «Adimen artifizialaren teoria kritikoa» izeneko liburuaren egilea, ikertzailea eta saiakeragilea; eta Humberto Bustince, Konputazio eta Adimen Artifizialeko katedraduna, ikertzailea, dibulgatzailea eta irakaslea, adimen artifizialaren erronkez eta aukerez mintzatu ziren bi topalditan, bata Irueñan eta bestea Bilbon, ikuspegi etiko eta humanistan oinarrituta. Bi topaldi horien helburua adimen artifizialak gure gizarteetan betetzen duen eta bete



beharko lukeen zereginari buruzko hausnarketa kritikoa eta diziplina anitzekoa egiteko eztabaidagunea sortzea izan zen.



Filosofia politikoa eta zientzia konputazionala ardatz hartuta, Innerarityk eta Bustincek teknologia horrek dakartzan erronka etiko, sozial eta politiko nagusiei buruz eztabaidatu zuten, arautzeko eta ulertzeko dugun gaitasuna baino azkarrago egiten baitu aurrera teknologia horrek.

Topaldia Bilbon egin zen berriro, azaroaren 10ean, Miriam Duque kazetariak moderatuta.

Horko horretan, adimen artifizialak demokrazian, sormenean eta jasangarritasunean duen eragina aztertu zuten bi adituek, eta berretsi zuten datuen etika eta erregulazio publikoa ezinbestekoak direla IAn.

5.19 Hitzaldien zikloa Helduak Elkartearekin (bi hitzaldi)

(1) Etxeko suteen prebentzioa, Javier Larrearen eskutik (OPRA)

Sute batean hiltzen direnen % 70 etxebizitzetan hiltzen dira. Ezbehar horietan hildakoen % 40, gutxi gorabehera, 65 urtetik gorako pertsonak dira. Alabaina, etxeko ke-detektagailuek erdira murriztu dezakete etxeko sute batean hiltzeko arriskua.

Javier Larrea Arriskuen eta Istripuen Prebentziorako Behatokiko (OPRA) presidentek eman zituen horrelako ezbeharrak prebenitzeko gakoak, Helduak Elkartearekin batera ekainaren 19an antolatutako hitzaldian.



(2) Pentsioen sistema publikoen indarguneak eta ahulguneak, Emilio Olabarriaren eskutik

Estatuko pentsio-sistema publikoak jasangarritasun-erronka handi bati egin behar dio aurre. Bada, Konstituzioaren konfigurazioak babes unibertsala, nahikoa, publikoa eta atzeraezina bermatzen du, baina errealitate demografikoak eta ekonomikoak printzipio hori kolokan jartzen du. Ia-ia 22 milioi pertsona ari dira lanean, hilero 12 milioi

pentsio baino gehiago finantzatzeko, eta sistemak BPGd indizearen % 4 gainditzen duen defizita metaturik dauka, hau da, 50.000 milioi euro baino gehiago.



«Desorekaren eragile nagusiak aski ezagunak dira: bizi-itxaropena luzatzearen aldean, egin beharreko kotizazioak bete dituzten interesdunen erretiroa hartzeko adina aurreratzea, baby boom delako belaunaldia erretiroaren sasoiara iritsi izana eta jaiotza-tasa txikia, kopurutan, etorkizuneko langileak prestazioei eusteko desabantaila garbian jartzen dituen. Horrez gain, gazteen lan-prekarietatea eta, soldaten kotizazioak topea jota dagoenez, sistemaren finantzaketatik at gertazen dira», aurreratu zigun Toledoko Itunaren sortzaileetakoak.

5.20 Euskal Pizkundearen ikur esanguratsunetakoa izan zen Esteban Urkiaga Lauaxeta olerkariaren jaiotzaren 120. urteurrena

120 urte bete dira XX. mendearen hasierako Euskal Pizkunde kulturalaren ikur nagusietakoa izan zen Esteban Urkiaga Lauaxeta euskal poeta eta idazlearen jaiotzatik. Urtemuga horren kariaz, poeta gogoratzeaz gain, gizon ausart eta guztiz moderno baten oroimena berreskuratu nahi izan dugu, bere ideietatik eta bere Herriagatik bizia eman zuelarik. Indarkeria faxistak isilarazi zuen Lauaxetaren ahotsa 1937ko ekainean, baina inoiz baino biziago jarraitzen du egun.



Sasoi hartan, matxinatuek euskal abertzalea izateagatik hil baino lehen, Lauaxeta euskararako politikaren bultzatzaile eta euskarazko komunikazioaren aitzindari izan zen.

Urrutiak azpimarratu zuen *Lauaxetak* kazetari eta kultur eragile sare baten bultzatzaile gisa bete zuen eginkizuna. Sare horren helburu nagusia euskara, hizkuntzaren erabilera, normalizazioa eta hizkuntzaren normatibizazioa izan ziren.

5.21 Alazne Díez Muñizen «Oroimenaren Laharrak, Sustriak eta Fruituak» liburuaren aurkezpena

Alazne Díez Muñiz soziologo eta antropologo plentziarrak idatzitako «Oroimenaren Laharrak, Sustriak eta Fruituak» azken liburuaren aurkezpena egingo zuen egileak urriaren 2an Sabino Arana Fundazioan. Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako lanak memoria kolektiboaren barrenetan murgildu gintuen, dibulgazio antropologiko darabilen saiakera nobelatu baten bidez.



Oroimenaren Laharrak, Sustraiak eta Fruituak gizonen eta emakumeen bizipenak uztartzen dituen lana da, eta garrantzia ematen die emakumezkoek elkarri lotuta dauden hainbat istoriotan. Kontakizun horietako asko elkarrikeria bidez jaso diren benetako gertaeretan oinarriturik daude, irakurleari egiazko ikuspegi hunkigarria eskainita.

5.22 Baionako Sabindiar Batzaren sorreraren 75. urteurrena, Luis de Gezala historialariaren eskutik

1950ean, baliabiderik ez eta erbestean zeudela, euskal abertzale batzuk Sabino Aranaren lan guztiak berreskuratzen tematu ziren. Urriaren 23an, Luis de Gezala historialariak emandako hitzaldi bat eskainiz gogoratu zuen Sabino Arana Fundazioak. «Sabindiar Batza erresistentzia kulturalako ekintza izan zen: Sabino Aranaren oroimena gordetzea, testuinguru hartan, euskal nortasuna bizirik iraunarazteko modua izan zen», adierazi zuen Gezalak. «Sabino Aranaren lan guztiak 1965ean argitaratu ziren eta beste argitalpen bat baino askoz gehiago izan zen: aberria baiesteko egintza izan zen».



«Sabindiar Batzak testuak bildu zituen eta, gainera, frankismoak desagerrarazi nahi izan zuen jarauntsi intelektualak berrosatu zuen».

75 urte geroago, Sabindiar Batzaren adibideak gure historia zaindu, ikasi eta transmititzearen garrantzia gogorarazten digu.

5.23 Nazien kontzentrazio-eremuetara bidalitako deportatu jeltzaleak omendu zituen Sabino Arana Fundazioak

Bigarren Mundu Gerran nazien kontzentrazio-esparruetara deportatu zituzten EAJ-PNVko militanteak omendu zituen Sabino Arana Fundazioak azaroaren 6an. Ekitaldian, Aitor Esteban EAJren EBBko presidentea izan zen buru, eta, bere hitzaldian, gorazarre egin zien euskal erresistentziako eta aliatuei laguntzeko sareetako kide izan ziren pertsona horiei.

Bigarren Mundu Gerran, nazien kontzentrazio-esparruetara deportatu zituzten hamabi jeltzaleetako bosten senideek parte hartu zuten ekitaldian. EAJren BBBko presidentek oroitzapen-plaka agerrarazi zuen nazismoaren izugarrikeria jasan zuten, gutxienez, hamahiru euskal abertzaleen omenez: **Hilario Agorria Urrutia, Santiago Anabitarte Altuna, José Miguel Arrate Itoiz, Juan Arregi Olano, Iñaki Eizagirre Markuerkiaga, Alejandro Elizalde Iribarren, Ramón Guerrero Fernández, Martín Pablo Hurtado De Saratxo Murua, Pedro Madariaga Rekalde, Manuel Mitxelena Oihartzabal, Martín Mitxelena Oihartzabal, Ambrosio San Vicente Arrieta** eta **Iñaki Saribiarte Elgezua**.



5.24 Oihane Agirregoitiak EB-Mercosur Akordioaren gakoak eta aukerak aztertu zituen Sabino Arana Fundazioan

Oihane Agirregoitia EAJ-PNV alderdiaren izeneko europarlamentariak hitzaldia eskaini du astelehen honetan Sabino Arana Fundazioan. Bertan, Europar Batasunaren eta Mercosurren arteko elkartze-akordioaren gakoak, aukerak eta erronkak azaldu ditu. Izan ere, akordio hori munduko merkataritza-itun handienetakoa da eta tresna estrategikoa da Europako eta Euskadiko ekonomiaren etorkizunean.

Agirregoitiak gogorarazi zuenez, 25 urteko negoziazioen ondoren, EBk eta Mercosurreko herrialdeek (Brasil, Argentina, Uruguai eta Paraguai) akordio politiko berria ondu zuten 2024ko abenduan, eta Europako Batzordeak iragan irailean aurkeztu zituen onarpen formalaren prozesuari heltzen dioten testuak. Elkarrizketa politikoa, lankidetzeta eta merkataritza uztartzen dituen itunak 750 milioi lagunetik gorako eremu ekonomikoa sortuko du, eta munduko eskualde arteko merkataritza libreko eremurik handiena izango da.

Europako Parlamentuko kideak azpimarratu duenez, akordioak aukerak eskaintzen ditu «merkatuak dibertsifikatzeko, hornidura-kateak indartzeko, lehengai kritikoak eskuratzeko eta gure industriaren lehiakortasuna hobetzeko», eta, aldi berean, berme indartuak dakartza iraunkortasunaren, Europako estandarren babesaren eta nekazaritzako elikagaien sektorerako babesaren arloan.

Ildo horretan, gogorarazi zuen testuak erantzun azkarreko tresnak arautzen dituela – besteak beste, muga-zergen abantailak aldi baterako etetea edo muga-zergak handitzea– Mercosurretik egindako inportazioek Europako ekoizleei kalte egiten badiete, bai eta etengabeko zaintza, aldebiko batzordeak eta eztabaidak ebazteko prozedurak ere. 350 jatorri-deituraren babesaren nabarmendu du, horien artean Idiazabal gaztarena edo Nafarroako patxaranarena.

Agirregoitiak aitortu zuen akordioak kezka sortu duela nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreetan, bereziki Frantzia, Irlandan edo Polonian, baina berretsi zuen «beldurrak legitimoak» direla eta «laguntza-neurriak erabiliz» uxatu behar direla, EBren aliantzak ehuntzeko gaitasuna geldiarazi barik, tentsio geopolitikoek, hornidura-kateetako disrupzioek eta protekzionismo global gero eta handiagoak behartutako nazioarteko testuinguru batean.

5.25 Txema Monterok frankismoaren legatua aztertu zuen, Francisco Franco hil eta 50 urtera

Duela berrogeita hamar urte, 1975eko azaroaren 20an, Francisco Franco zendu zen. Horrekin batera, Espainiar Estatuko bizitza politiko, sozial eta kulturala ia lau hamarkadatan gaiztotu zuen diktadura ere bukatu zen era formalean. Hala eta guztiz ere, mende erdi geroago, diktadorearen itzalak –bai eta zauriek eta isiltasunak– bizirik dirau orainaldian. «Badiote Franco duela mende erdia hil zela» izenburu ironikoaren ildoan, diktadorearen ibilerei buruzko hausnarketa ekarri zигun Txema Monterok, ikuspegi kritiko eta desmitifikatzailea erabiliz. Franco, zentzu askotan, ohiz kanpoko pertsona izan zen: adigaitza, aurpegi zurrunkoa, emozioak azaleratzen ez zituen, agintea eta hostasuna nahasten zituen botere maltzurarren ikurra.

Monterok proposatu zигun ibilbideak Francoren nortasunaren eta utzitako legatuaren hainbat alderdi jorratu zituen: (1) Gerra eta bakea, bizitza (bortitz) bakarraren aurkia eta ifrentzua: «errukirik gabeko» gerraren izaeran, igartzen da ezarri zuen bake «gupidagabearen» izaera. (2) Oportunista ideologiaren aldetik: komenientziazko katolikoa zen eta onuragarri zitzaizkion ideiei atxiki zitzaien, ezarritako erregimenaren oinarri. (3) Euskadiri dagokionez, ez zuen inoiz harreman normalizaturik izan. Horra hor «euskal salbuespenari» ezarritako zigorrak (Ekonomia Ituna, euskara eta kultura, salbuespen-egoerak...).

Laburbilduz, diktadorea hil eta mende erdira, hitzaldiak frankismoaren eta Francisco Francoren izate nagusiaren memoria era kritikoan berrikustera gonbidatu gintuen, haren iraupen sinbolikoz hausnatzera, eta historiatic, gaur egungo demokrazian oraindik ere durundi egiten duten oihartzunak ulertzera.





5.26 Gabriela Sagarmínaga diseinatzaile bizkaitarrak Euskal Abertzaletasunaren Museoan duen esperientzia partekatu zuen.



Euskal Abertzaletasunaren Museoak «Gazte ekintzaileak» zikloaren beste saio bat antolatu zuen azaroaren 26an, euskal gazteak ekintzaile dituzten proiektu berritzaileak ikusarazteko. Gabriela Sagarmínaga diseinatzaile bizkaitarra izan zen gonbidatua, diseinua, artea eta artisautza garaikidea uztartuz nazioarteko proiektzioa lortu duen Sagarmínaga Atelier delakoaren sortzailea. «Diseinua, artea eta ofizioa: begirada bat Euskaditik mundura» izenburuaren ildoan, Sagarmínagak bere lanaren oinarri den ibilbide sortzailea partekatu zuen, tradizioaren eta abangoardiaren arteko elkarrizketak gidatuta.

Hitzaldian, argi geratu zen tokiko tailer bat kultur eragile global bihur daitekeela nortasunari eta memoriari uko egin gabe. Nazioarteko lankidetzak, artisautza garaikidea eta gure lurraldean sakon errotutako begirada nabarmendu zituen Sagarmínagak sormena, identitatea eta berrikuntza balioan jarri zituen hitzaldian.

5.27 Elisa Rueda olerkariak egiazko poeta izateari buruzko ikuspegia azaldu zigun Liburuen txokoa ekimenean

Abenduaren 2an, Elisa Rueda olerkaria, irakaslea eta aktorea izan zen Fundazioan, *Liburuen Txokoa* deritzon ekimenean parte hartzeko. 2023. urtean ekin zion jarduera horri Euskal Abertzaletasunaren Museoak, entzuleak euskal literaturara hurreratzeko asmoz, betiere idazleen eskutik.

Ruedak berebiziko garrantzia dauka egungo olerkigintzan eta Gasteizko eta Arabako *Poetak Maiatzean* Nazioarteko Poesia Jaialdiaren sortzaile eta sustatzailea da. Bere bizi-ibilbideaz mintzatu zitzaigun, berebarekin daukan barru-barruko harremana aletu eta, azkenik, gaur egun poeta izateaz zer ulertzen duen azalduko zigun. Hitzaldian, poesiak komunitatea ehundu, hiria dinamizatu eta belaunaldien arteko esparru bihur daitekeela aldeztu zuen.



Poetak Maiatzean jaialdiak ehunka pertsona batzen ditu udaberrian eta estatuko nahiz nazioarteko ekitaldi sonatu bilakatu da; hala, Ruedak bultzaturiko kultur egitasmorik nabarmenetakoa da. Sari eta golardo ugari jaso ditu olerkariak kultura sustatzen egindako lanagatik, besteak beste, Gasteizko Urrezko Zeledon saria edo Déccellenza alla Cultura – Città del Galateo saria (Erroma).

06 EUSKARA

6.1 *Hizkuntza harrerarako ardatz batzuk mitegia*

Gurera etorri diren migratzaileak izan ziren Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak HIZKUNTZA HARRERARAKO ARDATZ BATZUK izenburuaren ildoan antolatu zututen jardunaldiaren protagonistak. Mintegia abenduaren 18an izan zen, Migratzaileen Nazioarteko Egunean, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.

Mintegiaren helburua izan zen migratzaileek hizkuntzari, kulturari eta abarri dagokienez ezezaguna den eremu geografiko eta kultural batean bizitzeko antzeman ohi dituzten aukerak eta zailtasunak jorratzea. Ikertzaileek, unibertsitateko irakasleek eta migratzaileen hainbat elkartetako ordezkariak parte hartu zuten jardunaldian.

Honako hauek guztiek jardun zuten hizlari edo mahai-inguruetakoko partaide: Julia Shershneva, IKUSPEGI Behatokiaren zuzendaria eta EHUko irakasle agregatua; Alberto López Basaguren, EHUko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna; Eduardo Ruiz Vieytez, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea; Larraitz Zumeta, IKUSPEGI Behatokiko ikertzailea; Amelia Barquín, Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea (HUHEZI); Nora Palmitano, Zestoako euskara teknikaria; Iker Barbero, EHUko irakasle agregatua; Celeste Agüero, irakaslea eta migrazio-aholkularia; Mamadou Saar, Ndank Ndank Elkarteko arduraduna; Mónica Quiroz, Gernika-Lumoko Ideasur Elkarteko presidentea.

Aurrekoez gain, ondokoek ere parte hartu zuten jardunaldian: Sagrario Aleman (euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeko burua), Xabier Aierdi (soziologoa), Patxi Juaristi (EHUko irakaslea eta euskaltzain urgazlea) eta Belen Uranga (soziolinguista, Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeko kidea).

07 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK

2025eko ekitaldian, Artxiboan biltzen dugun dokumentazioa eta urtean jasotzen duguna antolatzen, sailkatzen, deskribatzen eta birinstalatzeko jarraitu dugu. Horrekin batera, gure deskribapen-tresnak zuzentzen eta duela hiru hamarkada baino gehiagotik gorde dugun dokumentu-funts handia berrikusten jarraitu dugu. Aipagarriena Arteako dokumentu-funtsak prestatzea eta lekualdatzea izan da: Meñaka eraikinetik (Artxiboaren lehenengo egoitza 20 urtez) hurreko lonja batera. Lonja horrek baldintza hobekitu ditu dokumentazioa kontserbatzeko, eta Euskal Abertzaletasunaren Artxiboaren eta Museoaren behin betiko Urrutiko Gordailua da.

Azken urteetan ohikoa izan den bezala, 2025ean, Fundazioak jarduera biziz izan du mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, liburuen aurkezpenak edo filmen proiektzioak antolatzen eta egiten, adibidez. Horretarako, Fundazioko kide guztien laguntza eta dedikazio handiagoa behar izan da.

I. DOKUMENTU-FUNTSAK

A) AGIRITEGIA

2025ean, agiritegiko dokumentazio hau antolatu da (sailkapena, deskribapena eta instalazioa):

1) Artxiboak:

- a) Bermeoko EAJ-PNV alderdiaren udal-antolakuntzaren artxiboa, 1970-1990.
- b) Euzko Gudarosteko Artxiboaren lehenengo zatia.
- c) Jesus Maria Leizaola funtsa, 1937 eta 1948 arteko dokumentazioarekin.
- d) Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren Funtsa, 1989 eta 1998 artean Eusko Jaurjaritzan izandako jarduera eta EAJ-PNVren EBBrekin izandako harremanari lotutako dokumentazioa jasotzen duena, 1989 eta 1997 bitartean egindako bileren, gutunen eta abarren berri ematen duela.
- e) EAJ-PNVren Kanpo Batzordeak 1978 eta 2000 artean sortutako dokumentazioaren lehen sailkapena eta deskribapena.

2) Norbanakoen dohaintzetatik datozen funtsei dagokienez, ondoko artxiboetako funtsak behar bezala instalatu, erregistratu eta deskribatu dira:

- Camino familia (Sodupe)
- Madariaga Agirre familia
- Abasolo L. Amezaga familia (Iruñea)
- Arzelus Toledo familia, 1938-1979

- Basterra Ariño familia, 1936-2000
- Bilbao Sakona familia (Bermeo)
- Iñaki Anasagastik dohaintzan emandako agiri historikoak
- Julio Jauregi Alonso 1988-2025 (Oiartzun)
- Joaquin Egia Unzeta, 1940-1948 (Londres)

3) Urteko lehenengo hilabeteetan, **Euskadiko Artxibo Historikoaren dokumentazio historikoaren antolaketa eta deskribapena** amaitu zen, kontratu bidez. Jon Bilbao, Jose María Sota Zorraquin (Sota funtsa) eta lehen Eusko Jaurlaritzaren serieak izan dira funtsak.

B) LIBURUTEGIKO FUNTSAK

Aurten, **311** obra berri sartu dira Liburutegian. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko Liburutegia osatzen duten monografiak **36.861** dira gaur egun. Hala ere, kopuru horri Arteako urrutiko biltegian dauden 4.000 ale gehitu behar dizkiogu.

Ekitaldi honetan, kopurua dela eta, honako dohaintza hauek nabarmendu behar ditugu: Ainhoa Garitagoitia, Iñaki Anasagasti, Iñaki García Uribe edo Algortako uri batzarraren dokumentazioa.

Duela urte batzuetatik egiten ari garen moduan, Bilboko gordailuan ale bakarra gordetzen da lan bakoitzaren edizio bakoitzeko, baldin eta gaia eta edukia bat badatoz gure liburutegi espezializatuan ezarritako irizpideekin¹. Gainerako monografiak Arteako urruneko liburutegira eramaten dira (balioa kontserbazioagatik, bikoiztasuna gorabehera) edo beste helmuga batzuetara bideratzen dira.

Arestian aipatu bezala, atal honetan Arteako urruneko liburutegia birsailkatzeko lanak aipatu beharko lirateke (balorazioa eta banaketa/kokapen berria, kasuen arabera); hurrengo hilabeteetan amaituko dira.

C) UZTURRE HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu dugu, aleak banan-banan sailkatu, ordenatu eta egiaztatzeko lanak egin ondoren, errepikatuta dauden ala ez jakiteko. Hala, **9** titulu berri gehitu dira hemerrotekan 2025ean, 400 ale gehiago batuta. «Uzturre» hemerrotekak, 500 metro linealetik gorako biltegia duenak, orain arte **7.495** titulu desberdin ditu eta **188.153** ale inguru bilduta.

Bestalde, «Hustuketa» datu-basea (informazio historikoa duten artikulak, hainbat argitalpenetan argitaratuak (Euzkadi, Alderdi, Hermes, Bizkaitarra, Deia, Euzko Deya...) dagoeneko **15.474** erregistrora iritsi da.

¹ Historia Garaikidea, Politika, Antropologia, Zuzenbidea eta Gizarte Zientziak.

Agiritegian egin diren beste jarduera batzuk:

- Dokumentu-funtsak behar bezala antolatzea eskatzen duten berezko zereginekin batera, Abertzaletasunaren Agiritegian honako hauei eskaini diegu gure arduraldiaren beste zati handi bat:
- Agiritegiko erabiltzaileentzako arreta. Kontsultak telefonoz, posta elektronikoz, web bidez edo zuzenean jasotzea (erregistroa eta erantzunak), eta aretoan dauden nahiz bertaratu gabe dauden ikertzaileei zerbitzua ematea: gure funtsei buruzko informazioa ematea, dokumentazioa ematea eta jasotzea, erreprografia –fotokopiak eta digitalizazioak–, babestutako PDF fitxategietan eskaneatutako irudiak bidaltzea, eta abar. Horrez gain, informazio osagarria eskaintzen zaie eskatzen dutenei edo behar dutenei: Interneteko bilatzaileak eta datu-baseak erabiltzea, beste erakunde batzuekin harremanetan jartzea, web-estekak, eta abar.
- Dokumentu-euskarria ekoiztetxeentzat eta komunikabideentzat.
- Gure dokumentu-funtsen publizitatea, Sabino Arana Fundazioaren webgunearen eta sare sozialen bidez.
- Aurten egin diren gure historiako urteurrenekin zerikusia duten eta sortu diren jarduerak gauzatzeko, zabaltzeko edo dokumentu-euskarrian laguntzea, besteak beste:
 - Maurice Ravel musikari eta musikagilearen jaiotzaren 150. urteurrena. 1875eko martxoaren 7a.
 - EAJ-PNV alderdiaren sorreraren 130. urteurrena. 1895eko uztailaren 31.
 - Euzko Abendaren Ereserkia-ren 120. urteurrena. 1905eko apirilaren 29a.
 - Esteban Urkiaga Lauaxeta olerkariaren jaiotzaren 120. urteurrena. 1905eko abuztuaren 3a.
 - Bigarren Mundu Gerraren amaieraren 80. urteurrena (1945eko maiatza). Point-de-Graveko gudaren 80. urteurrena. 1945eko apirilaren 14a.
 - Caracasko (Venezuela) Euskal Etxearen inaugurazioaren 75. urteurrena. 1950eko martxoaren 7a.
 - Baionako Sabindiar Batzaren sorreraren 75. urteurrena. 1950eko irailaren 14a.
 - Diktaduraren amaieraren 50. urteurrena (50 urte joan dira Franco diktadorea hil zenetik). 1975eko azaroaren 20a.

- 40. urteurrena Jose Antonio Ardanza Lehendakari hautatu zutenetik.

1985eko urtarrilaren 24a. Bestalde, aipatu behar da, Agiritegiko eguneroko jarduera horrekin guztiarekin batera, 2024an Historia graduako bi ikasle gaztek egindako lana prestatu, zuzendu eta gainbegiratu dela, EHUK Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan ematen duen lan-trantsizioko bekaren (360 ordu) onuradun direla. Gainera, emakume batek borondatezko praktikak egin ditu astean behin, urtarriletik maiatzera. Hirurek agiritegiko funtsak lantzen jardun dute eta, besteak beste, argitalpen seriatuak eta monografiak kudeatu dituzte.

II. KONTSULTAK

2025ean, 225 informazio-eskaera jaso dira Abertzaletasunaren Agiritegian, hots, 2024an baino % 25 gehiago. Kontsulta horietatik, 76 emakumezkoek egindakoak eta 149 gizonezkoek egindakoak dira. Aurreko ekitaldiren ildo beretik, kontsulta gehienak posta elektronikoz (139) eta telefonoz (46) egin dira, aretoan zuzenean (22) edo gure web-orrian dauden inprimakiak edo Internet erabiliz (18), bai eta Facebook eta WhatsApp erabiliz ere.

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiartekoek, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan dezagun (urtero adierazten dugun moduan) informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla.

2025ean jasotako kontsulten banakaketa:

86	87	21	14	17
Unibertsitatea/ Ikerlanak	Norbanakoak	Kultur elkarteak Euskal Adm. Pub.	EAJ eta SAF	Hedabideak Ekoiztetxeak

Agiritegian jasotzen ditugun kontsulten kapitulu orokor honen barruan, informazioa eskatu ondoren, eta gure erantzunetan lortutako datuen ondorioz, agiritegira jatorrizko dokumentazioa bertatik bertara kontsultatzera igarotzen diren pertsonak egindako ikerketak ere zenbatzen dira. Aretoko erabiltzaile horiek –ikertzaileak, profesionalak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– memoria honen beste epigrafe batean ere zenbatu eta zehaztu dira, eta haien ikerketa-gaiak jasotzen. Ikerketa horietako gaien zerrenda baliagarria izan daiteke jasotako urteko kontsulta guztien lagin eta laburpen gisa.

Apurka-apurka, baina urtetik urtera gehixeago, unibertsitateko ikasleek Gradu Amaierako Lanak (GRAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) egiteko erabiltzen dituzte gure funts historikoak.

Agiritegian jasotako kontsulten zenbaketa orokorra, 1992ko urriaz geroztik erregistratukoak aintzat hartuta, **7.780** kontsultakoa izan da.

III. HISTORIA ETA DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA

Lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpenen kontrola, ikerketa-lanen koordinazioa...

Mintegia

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak «**Agiriak, diktaduraren gainerako biktimak Franco hil eta 50 urtera. Dokumentu-iturrietarako sarbidea, haien sakabanaketa eta konfiskazioa, XXI. mendean**», antolatu zuen azaroaren 12an. Orain dela hiru urte sortu zen ekimenari lotutako jarduera izan zen.

Sabino Arana Fundazioaren 30. urteurrenaren kariaz, gure Agiritegiak urtero-urtero artxiboei buruzko jarduera monografiko bat antolatzeko beharra sentitu zuen, askotariko alderdiak jorratzeko. Horren haritik, 50 urte bete dira aurtan Franco hil zenetik, eta gerrak eta diktadurak eragindako ondarearen eta/edo dokumentazioaren egoerak nahasgarria izaten jarraitzen du: artxiboak oraindik ere konfiskatuta daude, errepresioaren historia aztertzeko eta ezagutzeko iturrietarako sarbidea mugatua da edo ez da existitzen, itzuli gabeko ondasun ugari daude...

Hori dela eta, joan den azaroaren 12an antolatutako jardunaldiak abiapuntu berria izan nahi zuen, gertatutakoaren historia ezagutu ondoren eta orain arte lortutakoa kontuan hartuta, egungo egoerak alderdi guztietatik begiratuta hobera egin dezan aldarrikatzeko: ondasun eta funts dokumentalak legezko jabeei itzultzea, diktadurak sortutako dokumentuak eskuratzea, eta abar.

Arantxa Tapia Sabino Arana Fundazioaren presidente berriak aurkeztu zuen mintegia, eta honako hauek parte hartu zuten:

- **Aitor Esteban**, EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidentea: «*Sekretu ofizialen Legea*».
- **Josep Cruanyes**, Comissió de la Dignitat antolakundeko presidentea: «*Kataluniako dokumentu-ondarea. Itzultzeko aldarrikapenen iragana eta oraina*».
- **Fernando Mikelarena**, historialaria eta Zaragozako Unibertsitateko irakasle titularra: «*Frankismoaren zigorgabetasunari buruzko dokumentazioa eskuratzeko eta ikerketa egiteko mugak*».

- **Sergio Gálvez**, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioko Artxibo Nagusiko zerbitziburua: «*Konfiskazioa Estatu politika gisa frankismoan: Ondasun Sindikal Marxistak Kalifikatzeko Batzordea*».
- **Javier Buces**, NUPEko irakasle laguntzailea/Aranzadi Zientzia Elkarteko historialaria: «*Frankismoaren errepresioaren ikerketa historikoa Euskadin artxiboen bidez: zailtasunak, hutsuneak eta itxaropenak*».
- eta gure hitzaldia: «*Salamancan konfiskatutako euskal artxiboak. Euzko Alderdi Jeltzalearen dokumentazioaren kasua*».

Elkarrizketak eta beste jarduera batzuk:

DATA	EKITALDIA	PARTE-HART.
2025/01/13	Sabino Arana Goiriri buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Guezala, Luis de
2025/01/19	Ikurrinaren jazarpenaren amaierari buruzko elkarrizketa Euskadi Irratian	Goigana, Iñaki
2025/01/27	ondreseko Euskal Kontseilu Nazionalari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Guezala, Luis de
2025/02/03	Luis Companys Presidentaren eta Jose Antonio Agirre Lehendakariaren erbestealdirako irteteari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Guezala, Luis de
2025/02/17	Mendigoizale Bazkuna euskal mendizale abertzaleen elkartearen arautegiaren onarpenaren urteurrenari (1909ko otsailak 20) buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/02/24	Ekonomia Itunari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/03/25	Alberto Onaindiari eta 1943an kostaldean agertu ziren kautxuzko balei buruzko elkarrizketa Radio Euskadin	Goigana, Iñaki
2025/03/21	Bizkaiko EGIko taldearen bisita gidatua Sabino Arana Fundazioan eta Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian	Jauregi, Eduardo
2025/03/31	EAJ-PNV alderdiaren 130. urteurrenaren kariaz antolatutako zikloari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/04/14	Aberri Egunari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/05/05	Bigarren Mundu Gerraren amaieraren 79. urteurrenari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian. Leon Degrelle nazia Kontxan lurreratu zen	Gezala, Luis de
2025/05/12	Euskal Kontseilu Nazionalak eta Frantzia Askearen Kontseiluak 1941ean sinatutako akordioaren 84. urteurrenari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/05/26	Lizarrak autogobernua ametsa izan zuen egunari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian. Euskal Autonomia Estatutuak	Gezala, Luis de
2025/06/02	Emakume Abertzale Batzari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian: 1922an sortutako euskal ekintza politiko eta	Guezala, Luis de

DATA	EKITALDIA	PARTE-HART.
	sozialaren aitzindarien elkarteak	
2025/06/16	Carlos Garaikoetxea Lehendakariaren karguaren zina eta Gobernu Kontseiluaren lehen bileraren 45. urteurrenaren inguruko elkarrizketa Bizkaia irratian	Goigana, Iñaki
2025/06/23	Bilboren galerari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/06/30	Abandoko elizatea Bilboko hiriar atxiki zitzaionetik 135 urte bete direla eta, elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/07/07	Baionako Estatutuaren 117. urteurrenari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/07/14	Ikurrina igo zen lehen aldiari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/09/08	Pablo Picassoren Gernika Madrilen nola lurreratu zen azaltzeko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/09/15	Joseba Elosegik Francoren aurrean egindako autoimmolazioaren 55. urteurrenari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/09/29	Elkarrizketa Onda Vasca irratian, 1936ko irailaren 1ari buruz, hau da, diktadura frankistaren hasierari buruz	Gezala, Luis de
2025/10/06	Eusko Jaurlaritzak matxinatuei laguntzeagatik espetxeratutako emakume guztiak askatzeari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2025/10/08	Lehen Eusko Jaurlaritzari buruzko elkarrizketa Euskal Telebistan	Goigana, Iñaki
2025/10/20	<i>Gorde haren oroimena!</i> hitzaldia. Sabindiar Batzaren 75. urteurrena	Gezala, Luis de
2025/11/10	Franco hil eta 50 urtera, artxiiboak, diktaduraren beste biktimak mintegiari buruzko elkarrizketa Onda Vascan	Jauregi, Eduardo
2025/11/17	Francisco Francoren heriotzaren 50. urteurrenari buruzko elkarrizketa Onda Vascan	Gezala, Luis de
2025/11/28	Hitzaldia Algortako batzokian batzokiaren sorreraren 120. urteurrena dela eta	Gezala, Luis de
2025/12/15	Jesus Maria Leizaola Lehendakariaren itzulerari buruzko elkarrizketa Onda Vascan	Gezala, Luis de

Argitalpenen kontrola

- DEIA egunkariko «Historias Vascas» sailean, astean behin bi orrialdetan argitaratzen diren artikulak koordinatu ditugu. 2009. urtetik hona egiten da lan hori.

IV. AGIRIEN DOHAINTZAK

2025ean, **35** pertsona eta/edo erakunde aritu dira Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiarekin elkarlanean, eta hainbat dokumenturen dohaintza egin dute. Kopuru horretatik **16** dohaintza berriak izan dira aurten.

Orain arte, **1.654** dohaintza jaso dira Agiritegian.

Aurtengo emaileak hauexek izan dira:

Data	Dohaintza-emailea	Funtsa
2025/01/08	CAMINO, IÑIGO	Agiritegia eta museoa
2025/01/28	PIEDRA, GABRIEL	Hemeroteka
2025/01/29	RODRIGUEZ, JESÚS	Liburutegia
2025/02/11	BARANDIARAN, MIREN	Agiritegia: EAJ-PNV alderdiaren propaganda politikoa
2025/03/07	MESANZA, MIKEL	Bernardo Mesanzaren dokumentuak
2025/03/10	ARJONA, JUAN IGNACIO	Ángel Ballesteros Martinezen historia
2025/03/19	BERRIOZABAL, ROMAN	Agiritegiko dokumentuak
2025/03/25	TELLERIA, LUIS JAVIER	Agustín Telleria Mendizabal – Karlismoa
2025/04/02	ONAINDIA, SABIN	Gudari baten oroitzapenak, 1936-07-18 (Valentín G. Onaindiaren egunerokoa, 1936-39)
2025/04/09	EGUIA, MIREN DE	Joaquin Egia Unzeta funtsa
2025/04/28	MENDIBELZUA, IBON	Madariaga Agirre familiaren dokumentuak (erbestealdia Mexikon)
2025/04/30	GARITAGOITIA, AINARA eta JUAN	Juan Garitagoitia Viar: Agiritegia, Liburutegia eta Museoa
2025/05/09	LANDA, MARIASUN	Mariasun Landaren bibliografia osoa
2025/05/13	ARANZADI ELKARTEA	Ikus-entzunezkoak, liburutegia
2025/06/03	NAVARRO, BUENAVENTURA	Bibliografia (Puerto de Saguntoko historia)
2025/06/03	ARIZMENDIARRIETA KRISTAU FUNDAZIOA	Liburutegia eta ikus-entzunezkoak (bideoak)
2025/06/09	AIZPURU, MIKEL	Agiritegiko eta hemerotekako argitalpenak
2025/08/29	MITO URKIOLA, BITTOR	Agiritegia
2025/09/09	ZINKUNEGI, JONAN	Joseba Zinkunegi eta Ander Arzelusen dokumentuak
2025/09/15	BILBAO, CARMEN	Begoña Basterra funtsa
2025/09/16	LAZKAOKO BENEDITARREN FUND.	Agiritegia: propaganda politikoa
2025/09/17	MURUAGA, ENAITZ	Jaialdia Boisen – Idaho (AEB)

Data	Dohaintza-emailea	Funtsa
2025/09/22	URUTXURTU, JON	Liburutegia
2025/09/23	JAUREGI, JULIO	Agiritegia: gutuneria
2025/09/24	EAJ-PNV, EBB	Agiritegiko dokumentuak, ikus-entzunezkoak
2025/09/30	LEGARRETA, JOSU	Liburutegia
2025/10/08	PEREZ, LUIS JAVIER	Jose Antonio Agirre (Perun)
2025/10/29	TXURRUKA, JESUS MARI	Agiritegia: gerrako biktimen senideei buruzko informazioa
2025/10/30	ANASAGASTI, IÑAKI	Agiritegia
2025/11/07	GARAI LANDA, LUIS JESUS	Sabino Aranaren agiriak – Agiritegia
2025/11/12	CRUANYES, JOSEP	Liburutegia
2025/11/13	BILBAO, XABIER	Liburutegia
2025/11/18	MARDARAS, EMILIO	Ikus-entzunezkoak, agiritegia
2025/11/20	RETOLAZA, UXUNE	Luis Maria Retolazaren dokumentuak
2025/12/16	GALLARRETA, KOLDO	Agiritegia: Felipa Marina Urrutia, Belgikan erbesteratua. 1937-1941 urteetako dokumentuak

V. IKERTZAILEAK

2025ean, **65** ikertzailek kontsultatu dituzte gure dokumentu-funtsak: 41 gizonen eta 24 emakumek.

Ondoko gaiak kontsultatu dira:

Kontsultagaiak
Alava sarea
Eusko Jaurjaritza 1980
Anton Irala
Alejandro Gallastegi
Israel - Palestina eta Euskal Herria
AVASC
Euskaldunak Argentinan eta <i>Euzko Deya</i>
Miobilizatutako industriak
Prentsa eta propaganda Euskadin Bigarren Mundu Gerran
Kanpoko falangea eta Pilar Lubian
Senideen datuak (aitita-amamak...)
Irlandarekiko lotura
Konfiskatutako ondasunen bidalketen erregistroak 1930-1960

1976ko martxoaren 3 ^a
<i>Pertur eta Naparraren</i> desagertpena
Claudio Gallastegi, San Antongo abadea
Alfredo Etxabe
Carmen Gurtubai
Euskadiko Alderdi Komunista (EPK), 1956 - 1982
Euskaldunak nazien kontzentrazio esparruetan. Angel Lekuona Busturiaren istorioa
Sobrino Riaño familiaren biografia
Euskal abertzaletasunaren lotura ingelesten eta boerren arteko gerrarekin
EAJ-PNV alderdiaren zatiketa
Euskadiko furbol selekzioa
Indarkeria politikoa Euskadin
Ingalaterrara ebakatu zituzten euskal neska-mutikoen esperientzia medikoa
Gipuzkoako enpresen azken 50 urteak
Gerra Euskadin, Bilboko irratia, Santoñako ituna
Europazaletasuna
Meñakako batzokia
Ignacio Rotaetxe Velasco
Edili argitaletxea
Puerto de Saguntoko historia, industria birmoldaketaren aldia (80ko hamarkada)
Euskal abertzaletasuna eta migrazioa XXI. mendean
Gerra Zibila Lemoan
Santos Lopez de Letona
Diego Pascual Eraso
Gerra Zibila Euskadin. Euzkadiko Gobernuaren hiztegi biografikoa, 1936-37
Antzuola Gerra Zibilean
<i>Euzkadi</i> aldizkarian argitaratutako artikulua
Jose Eizagirre
Israel - Palestina eta Euskal Herria
Emakume Abertzale Batzaren irudia II. Errepublikako prentsan
Alemaniar deportatutako euskaldunak
Karmele Errazti
Aldizkako argitalpenak
Euzko Gaztedi – EGIren pintadak 60ko eta 70eko hamarkadetan
Batzokiak, ereduizko gisarte-dinamikak herri kohesionatzeko

Espainiako nazionalismoen kulturaren erresumak
Valentin Askasibar Iriondo
Manuel Intxausti eta Lurdes Euzko Aur-Etxea kolonia (Jatsu, 1937-1939). Gerrako 34 neska-mutilen aterpetxea
Nazien egitura Bilbon
Gerra Zibila Valle de Menan (Burgos)
Gorlizko itsas erietxearen ebakuazioa Gerra Zibilean
Ezkerreko indarrak Bizkaian Gerra Zibilean
Errepresaliatutako emakumeak gerran eta frankismoan
Euskara Enkarterrin. Euskarazko lehen eskolak Sodupen
Euskal aberriaren kontzeptuaren bilakaera EAJren diskurtsoaren esparruan
Salvador Urroz Polit

VI. INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA: WEBGUNEA – SARE SOZIALAK

- Sabino Arana Fundazioaren webgunean dagoen datu-basea aldi berean behin eguneratzea, gure dokumentu-funtsen artean biltzen ditugun liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioarekin.
- Efemerideak sare sozialetarako (Facebook, Instagram eta Twitter)
- Mezu@buletin elektronikoa bidaltzea, urtero egiten ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Ekitaldiak streaming bidez zuzenean zabaltzea; gure egoitzako Lehendakari Agirre aretoan egiten diren jardueren bideo-grabazioak biltegitratzea (hitzaldiak, mintegiak, liburuen aurkezpenak, etab.) eta ondoren Internetera igotzea, gure webgunetik edo YouTubeko profiletik nahi denean ikusteko. Aurten, 51 grabazio paratu dira YouTube kanalean.

08 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

Urteko balantzea

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak jarduera biziari loturik itxi du 2025eko ekitaldia: funtsak kudeatzen, kontserbatzen eta zabaltzen, hezkuntza-eskaintza hedatzen eta unibertsitate-esparruarekin eta beste kultura-erakunde batzuekin lotzen.

Bildumen kudeaketa eta kontserbazioa

2025ean, nabarmen aurreratu dugu Museoaren argazki-funtsaren inbentarioan, katalogazioan eta digitalizazioan, arreta berezia jarrita Eusko Legebiltzarrari lotutako irudiei, 1935eko Aberri Egunari, Eusko Jaurlaritzak Parisen izan zuen ordezkartzari (Avenue Marceau), Bilboko Club Deportivo delakoari, La Roseraieri eta Begoña de la Sotaren albumaren zati bati.

Aldi berean, Museoaren bi biltegietan kontserbatutako pinakoteka biratalogatu da, horietako bat kanpoko delako, Artean, obren kontserbazio-egoera berrikusiz eta kokapen berria esleituz. Era berean, funtsen katalogazioa osatu da, bai eta dohaintzetatik datozen sarrera berrien inbentarioa ere; izan ere, 1.587 pieza baino gehiago jaso dira bildumen eta argazki-funtsaren artean.

Aurreko urteetan bezala, gure funtsen prebentziozko kontserbazioa egin dugu, hainbat piezaren egungo egoerari buruzko txostenak eginez, eta pieza bakoitzak behar duen zaharberritze-maila, zaharberritzea berehalakoa izan behar den edo pieza bakoitzaren narriadura-maila adieraziz.

Pieza nabarmenen garbiketak egin dira, egungo egoera hobetzeko, bai eta materiala galduta zuten marrazkien eta irudien gainean egindako zaharberritze-lan batzuk ere. Prozesu hori Leioako Arte Ederren Fakultateko praktiketako ikasleek egin dute, Leioako campusean arte garaikidearen kontserbazioari buruz egiten den masterra ematen duten irakasleek gainbegiratuta.

Programa didaktikoak eta publikoak

2025ean, Museoak bere eskaintza didaktikoa indartu eta zabaltu du, Gabonetarako eta aisialdiaz gozatzeko tailer eta proposamen espezifiko berriak diseinatuz.

Eguneko zentro eta ospitaleak, adineko pertsonen elkarteak eta taldeak xede dituzten jarduerak sortu dira, eta Museoaren bi ihes-aretoen hedapena bultzatu da, ikurrinaren eta Alava sarearen gaiak ardatz hartuta, erakundearen sare sozialak erabiliz.

Askotariko parte-hartzaileentzat (hitzaldiak, dokumentalen proiektzioa eta beste jarduera batzuk) antolatutako hezkuntza-programazioak ez du etenik izan urte osoan.

Gainera, Museoak, aldi baterako erakusketak sortzeaz gain, beste erakunde batzuek antolatutako erakusketetan parte hartzen jarraitu du, aldi baterako erakusketetarako funtsak lagaz eta museo eta erakunde desberdinetako erakusketa iraunkorretarako piezak utziz.

Unibertsitatearekiko lotura eta prestakuntza

Aurten bederatzi unibertsitate-ikasle izan ditugu praktketan. Horietatik lau lan-merkatura igarotzeko beken programari atxikita egon dira, EHUko Arte Ederretako eta Gizarte Zientzietako fakultateetatik etorrira, bai Leioako campusetik, bai Gasteizko campusetik. Hainbat lan egin dituzte, bai katalogazio-lanak, bai Museoaren eguneroko jardueratik sortutako eguneroko lanak, bai museoko piezetako batzuk zaharberritzea.

«Agiri Kulturala» Arte Ederretako Fakultatearen programa lantzen jarraitu dugu. Dokumentu horrek aukera ematen du, kultura-pasaporte gisa erabiliz, ikasleek ekimen askotan parte har dezaten: erakusketak, tailerrak, mintegiak, hitzaldiak... estimuluak, esperientziak eta ezagutzak jasota. Gainera, harreman zuzena dute mundu profesionalarekin, arlo guztietan. Horrela, urte akademikoa amaitzean, ikasle bakoitzaren curriculum osagarria islatzen duten ziurtagiriak ematen dira, ikasle bakoitzak curriculumetik kanpoko prestakuntza pertsonalizatua eratu ahal izan dezan dagozkion graduako edo graduondoko ikasketak egiten dituen bitartean.

Unibertsitate-esparruan, gure jardueren publizitatea egiten jarraitu dugu, UPV/EHUko fakultateek ikasleekin eta ikasle ohiekin dituzten bideetatik; horrela, gure eskaintza zuzenean iristen zaie, eta aukera gehiago eskaini dugu unibertsitate-esparruan.

Zabalkundea, sare sozialak eta erakundeen arteko lankidetzak

Sabino Arana Fundazioaren sare sozialetan barreiatutako informazioetarako irudiak erabiltzen jarraitu dugu, baita Fundazioan egindako ekitaldietarako ere, eta gure argazki-funtsarekin parte hartu dugu DEIA egunkariak argitaratzen duen «Historias vascas» sailean, baita hainbat ekoiztetxerekin ere, dokumentalak, bideoak... egiteko.

2025ean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Museoen Zerbitzuaren bitartez, museo bakoitzaren ondarea zabaldu du, Museotik eta Kulturklik plataforma berrien bidez. Bertan, Eusko Jaurlaritzako museoaren sarea osatzen dugun museo bakoitzaren kultura-ondarea zabaldu genuen.

«Nor gara gu?» erakusketa iraunkorra

Nor gara gu? erakusketa iraunkorrari eta «Bitxiak» espazioari dagokienez, esan beharra dago ekitaldi honetan 12 pieza berri aurkeztu ditugula.

Horietako hamaika Museoaren bildumakoak dira, eta hamabigarrena Euskal Artzainak Ameriketan Museoarekin dugun lankidetzatik dator; hala, Museoak euskal abertzaletasunari eta haren ondareari buruzko kontakizun bizia eta etengabe eguneratua erakusteko bokazioa sendotu da.

Katalogazioa

2025eko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak eutsi egin dio ondarea zaindu, zabaldu eta horren inguruko prestakuntza emateko eginkizunari; ildo horretan, bereziki indartu dira unibertsitatearekiko lankidetzak eta bildumak balioan jartzeko ekinbidea.

Aurreko urteetan bezala, UPV/EHUko Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren eta Arte Ederren fakultateetako bederatzi ikasle izan ditugu gurean. Azkenei dagokienez, Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Gradu eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean fundazioan. Horiek guztiak Eusko Jaurlaritzak 3. eta 4. mailako ikasleentzat ematen dituen laneratzeko bekei esker aritu dira museoan. 2025ean, lau bekadunek jardun dute apiriletik ekainera, horietako bakoitzak 360 orduko arduraldia izan duela. Ikasle horiek 2.300 ordu baino gehiago eman dituzte digitalizazioan, deskribapen teknikoan, hainbat funtsetako irudiaren tratamenduan eta gure pieza batzuen zaharberritzean.

Bestetik, funtsak antolatzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen jarraitu dugu lanean:

Argazki-funtsa. Aurten jasotako 290 argazki baino gehiago erregistratu, katalogatu eta «Sabino Arana Fundazioa» deritzon molde txertatu diegu irudiei. Horrez gain, beste dohaintza bat egin du Iparragirre S.A. argitaletxeak (DEIA egunkariaren editorea), eta 50.000 negatibo baino gehiago jaso ditugu, 1977 eta 2000 urteen artean Bizkaiko hainbat lekutan izandako gertaerak jasotzen dituztenak. Sail horretakoak, 32.030 negatibo baino gehiago jaso dira dagoeneko inbentarioan.

Arte grafikoak. Kartel eta eranskailuen atala: eranskailuen atalean jasotako 395 ale baino gehiagoren inbentarioa lantzen jarraitu dugu, eta, argazki digitalak eginez, horiek guztiak erregistratu ditugu. Halaber, plano-ontzietan eta melinex erabiliz gorde dira 150 kartel baino gehiago.

Posta-txartelen atalean, 100 postal berri baino gehiago katalogatu eta digitalizatu dira, bai Euskadiko paisaiei dagokienez, bai munduko gainerako tokiei dagokienez.

Atal honetan, Arte Ederren Fakultateko Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Gradu ikasleek eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean, praktikaldian. Erregistroak inbentarioan jaso dituzte aipatutako ikasleek eta euron kontserbazio-egoera ebaluatu dute.

Dekorazio-arteak. 100 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederren Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira, eta ale batzuen garbiketa berezia egin dute.

Pinakoteka. Museoan aurten jaso ditugun pieza berriak, 120 baino gehiago, katalogatu eta instalatu dira. Arte Ederretako Fakultateko praktiketako ikasleek egin dute lan hori.

Gaur egun, 2025ean jasotako dohaintzen inbentariatzen eta dagozkien euskarrietan instalatzen jarraitzen dugu. Ildo horretan, funts desberdinetarako berreskuratutako materialak nabarmendu behar dira: argazkiak, arte grafikoak, dekorazio-arteak eta abar.

Baterako lan horri esker, Euskal Abertzaletasunaren Museoak zaintzen duen ondarea aberasten eta zaintzen jarraitu dugu, eta, aldi berean, unibertsitateetako ikasleei ikasteko eta profesionalizatzeko espazio erreala eskaintzen zaie museoen kontserbazioaren eta kudeaketaren esparruan.

Zaharberritzeak

2025ean, zeregin hauek burutu ditugu:

- Urtearen barruan, museora heldu diren guztiak identifikatzea eta erreserban gordetzea.
 - Inbentario orokorrean alta eman ostean, fitxa teknikoa bete da.
 - Pieza guztietan, funtsaren erregistro-zenbakia identifikatzen duen etiketa itsatsi da.
 - Piezaren kontserbazio-egoera aztertu da.
 - Museoaren instalazioetan kokatu da.
- Gordetako piezen prebentziozko kontserbazio-lanak.
 - Artxibatutako kaxen eta tiraderen barrualdea ikuskatzea, guztia behar den moduan dagoela egiaztatuz eta, hainbatetan, piezen jarrera aldatuz.
 - Datuen kontrola egitea, fitxa informatikoa eta pieza alderatuta.
- Bildumaren kokalekua aldatuenez, beste biltegi txiki batera eramanenez, piezen azterketa xehatua egin da; batez ere, egungo kontserbazio-egoera ebaluatu da eta birkatalogazioa ere egin dugu, pieza bakoitzari kokaleku berria esleituta eta datu hori pieza bakoitzaren fitxan aldatuta.

Honako zeregin espezifiko hauek ere egin dira:

1. AL0129/02 argazki-albumaren gainean egindako kontserbaziozko esku-hartzea. Zuri-beltzeko 56 argazkik osatzen dute bilduma, Gerra Zibilean Euskal Herrian erreketetaldetik egindako jarduerarekin zerikusia dutenak.

Esku-hartzea beharrezkotzat jo zen egiturazko hauskortasunagatik, muntaketa-sistemaren ezegonkortasunagatik, abian zeuden prozesu kimikoengatik eta artxioboaren balio historiko eta lekukotasunaren balio handiagatik.

Esku-hartzea neurri itzulgarri eta ez-inbaditzaileetan oinarritu zen, prebentziozko kontserbazioa lantzeko:

- Garbiketa mekanikoa lehorrean brotxa leunak erabiliz, azaleko zikinkeria kentzeko.
- Melinex zerrenden bidezko moteltze-sistema, bizkarreko tentsioak banatzeko eta urradurak saihesteko.
- Alkandora babesgarri bat Melinex erabiliz, argazki-albuma manipulaziotik eta hautsetik babesteko.

2. Josefina Maguiren familiako argazki-albumaren gainean egindako kontserbaziozko esku-hartzea. Zuri-beltzeko 42 argazkiz osatuta dago, gutxi gorabehera 1920ko eta 1980ko hamarkaden artekoak.

Albuma Bilboko eguneroko bizitzaren lekukotasun bisuala da, familia-irudiekin eta Casilda Iturrizar parkean ateratako argazkiekin.

Esku-hartzea hainbat fasetan garatu zen:

- Albumaren desmuntatze partziala eta argazki guztiak modu kontrolatuan kentzea.
- Irudi bakoitzaren inbentarioa eta digitalizazioa, esku hartu aurretik.
- Argazkiak zaharberritzea, honako hau aplikatuz: itsasgarri metilzelulosoak, guztiz itzulgarria.
- Ebaketak konpontzea eta ahuldutako euskarriak sendotzea.
- Banakako alkandora babesgarriak fabrikatzea itsasgarririk gabeko Melinex erabiliz, argazki bakoitza albumetik isolatzeko.
- Albuma brotxak, Wishab eta ur destilatua erabiliz garbitzea, modu kontrolatuan aplikatuta.
- Melinex erabiliz, kanpoko estalkia sortzea, alkandora zurrun gisa, bolumena oso-oso babesteko.

3. Zuri-beltzeko argazki panoramiko batean (90 × 30 cm) egindako esku-hartze kontserbatzailea, ziur asko XX. mendearen lehen erdialdekoa, Lourdesko basilikan eginda.

Argazkia harri-kartoi azido bati itsatsita zegoen, bigarren mailako euskarriaren egiten zuena. Narriadura nabarmena zeukan:

- *Silver mirroring*, horidura eta azaleko zikinkeria.
- Uhinak, urradurak, material-galerak eta zati solteak.
- Itsasgarri zaharrak, zinta-hondarrak eta egiturazko tentsioak.

Esku-hartzea beharrezkoa izan zen piezaren ezegonkortasun kimikoaren zioz (oxidazioa, azidoaren migrazioa), hauskortasun fisikoaren zioz eta laster jendearen aurrean erakusteko beharragatik. Harri-kartoiak ez zuen balio dokumentalik, azidoa zen eta narriadura bizkortzen zuen; beraz, ezinbestekoa zen kentzea.

Esku-hartzearen prozesua:

- Zaharberitzea hainbat fasetan egituratu zen:
- Bigarren mailako euskarria kentzea. Harri-kartoiak modu kontrolatuan kentzea, hezetze eta jasotze mekanikoaren bidez.
- Atzealdea garbitzea. Itsasgarriak, hautsa eta zuntzen hondarrak kentzea, belakiak, isipuak eta bisturiak erabiliz.
- Lehortzea eta hasierako lautzea. Lehorgailuen artean prentsatzeta 17 orduz.
- Egituraren egonkortzea. Atzealdeko papereztatze osoa japoian papera eta metilzelulosazko itsasgarria erabiliz.
- Zatiak berregokitzea. Urraduren eta askatutako eremuen berreraikitze zehatza.
- Euskarri berrian muntatzea. Obra azidorik gabeko kartoi kontserbatzaile bati atxikitzea (ISO 18902:2013).
- Berrintegrazio bolumetrikoa. Hutsuneak betetzea japoniar papera erabiliz.
- Berrintegrazio kromatikoa. Galera-eremuetan, akuarelak aplikatzea, gehiegi berreraiki gabe.

4. J. Zubillagaren 25/0189 «Errezil* obraren amaierako esku-hartzea

Esku-hartzearen ardatza osagaiak egonkortzea eta material hondatu eta desegokiak kentzea izan zen. Jarraian, esku hartzeko prozesuari buruzko datu garrantzitsuenak laburbiltzen dira:

- Garbitzea eta desmuntatzea. Gainazalaren garbiketa mekanikoa egin zen, hauts eta azaleko zikinkeria kentzeko ile leuneko brotxa bat erabiliz.
- Desmuntatzea: Obra desmuntatu zen, zeloa (zinta itsaskorra) eta markoa bastidorean finkatzen zuten iltze herdoilduak kenduz. Grapa herdoilduak ere kendu ziren markotik.
- Itsasgarriak kentzea: zeloaren itsasgarriaren hondarrak ligroina aplikatuz kendu ziren, eta itsasgarriak eragindako huridura gehiena alkohola erabiliz kendu zen.
- Bastidorea finkatu zen; izan ere, garbiketan, egitura ahuldu egin zen, xilofagoek (sitsa) egindako eraso baten ondorioz, eta euskarria sendotzea erabaki zen, Paraloid B72 erretxina akrilikoa erabiliz. Azetonan disolbatu zen, eta bi fasetan aplikatu zen, barruratzea eta eraginkortasuna bermatzeko: lehenik % 12ko eta gero % 20ko disoluzioa baliatuta.

- Iltzeek eta xilofagoek eragindako gainazaleko hutsarteak betetzeko, Modostuc erabili zen (zurezko pastazko iztuku bat).
- Berrintegrazio kromatikoak: betelanetako eremuak lehortu eta nibelatu ondoren, akuarela bidezko berrintegrazio kromatikoak egin zen, eremu horiek bisualki bigarren planora igaro zitezkeen.

Nor gara gu? erakusketa iraunkorra

Ibañez de Bilbao 16an, *Sabin Etxean*, dagoen Euskal Abertzaletasunaren Museoaren erakusketa iraunkorrak berretsi egin du 2025ean euskal abertzaletasunaren historia ezagutzeko erreferentziatzeko gune gisa duen eginkizuna; horretara, bisita gidatuen eskaria nabarmen igo da, bai aste barruan, bai asteburuetan. Gainera, museoa irekita egon da eta sarrera doakoa izan da abuztuko azken astean. Horrek lagundu du erakusketa publiko berrietara hurbiltzen.

Erakusketan, gure historiaren hainbat une historiko biltzen dira, eta aurten bi mila bisitari baino gehiago etorri dira ikustera, Euskadikoak ez ezik, Espainiakoak eta, batez ere, euskal diasporako kideak (batik bat, Mexikotik eta Argentinatik etorritakoak), baita Estatu Batuetakoak eta Japoniakoak ere, guztiek gure historia sakonago ezagutzeko interesa izan baitute. Guztira, 3.374 pertsonak bisitatu dute erakusketa; horietatik 1.500 emakumezkoak eta 1.874 gizonezkoak izan dira.

2025ean, «Bitxiak» espazioa museoko bildumatik ateratako piezez hornitzen jarraitu dugu, eta museo batzuekiko lankidetzari esker ekarritako pieza batzuk ere erakutsi ditugu. Espazio horretan, hilabetean, gure biltegietan gordetako objektuak erakusten dira, bisitariak bildumaren aberastasuna eta aniztasuna hobeto ezagut ditzan. Ekimen hori ingurune digitalera ere eraman da, museoaren webgunearen bidez. Bertan, pieza bakoitza bi bideekin batera aurkezten da: batetik, Fundazioaren presidentek aurkeztu egiten du hilabete horretan ikusgai egongo den pieza, eta, bestetik, objektu horri lotutako pertsonen testigantzak jasotzen dira, museo-esperientziari dimentsio gizatiarra emanda eta testuingurua hobeto landuta.

Bisitatzera etorri direnek harrera bikaina egin diote erakusgune berriari eta aurrera jarraitzera gogatu gaituzte.

Aurten, ondoko piezak erakutsi ditugu:

Urtarrila: 13/0249 pieza. Francisco Lorda Yoldi jaunaren erretratua, Javier Ciga Etxandi margolariak egin.

Otsaila: R. Aguilera ikatz-ziriz egindako marrazkia. Lehen Eusko Jaurlaritzako osasun sailburu izandako Manuel Campomanesen erretratua da. Marrazki honek balio historiko esanguratsua du, sailburua Puerto de Santa Maria espetxean emandako sasoiari marraztu baitzen.

Martxoa: Bidaia-kutxa beltza, aurrealdean bi burdineria-mota dituena eta J.A.A. inzialak gorriz margotuta dituena, Jose Antonio Agirre Lekube Lehendakariak Ameriketara egindako bidaietan erabilia, 1942.

Apirila: Urduñako San Pedro frontean aurkitutako obusa.

Maiatza: Begoña de la Sota Aburtoren familia-albuma (1904–1993)

Zuri-beltzeko 337 argazkiz osaturiko album honek Bilboko eliteek 20ko hamarkadan izan zuten eguneroko bizitza, soziala eta kulturala islatzen du.

Jaiak, ongintzazko jarduerak, itsas bainuak eta etxe barruko irudiak ditugu modernitateak ekarri zituen aldaketen adierazgarriak, batez ere, emakumeentzat.

XX. mendean piztu ziren gerren aurreko Bilboko burgesen testigantza baliotsua da.

Ekaina: Euzkadi taldeak SESBerako bidaiari erabili zuen txandalaren jaka.

Uztaila/Abuztua: AEBko euskal artzainen burusia edo berogarria (Euskal Artzainak Ameriketara Museoarekiko lankidetzat).

Iraila: Aurora Unzuetak, Londreseko Euskal Ordezkaritzako idazkariak, erabili zuen gutun-azalak irekitzekoa.

Urria: Standard Eléctrica markako kanpainako telefonoa C-30101.

Azaroa: Sabin Etxe zaharraren maketa. Jose Martzian gobernadore zibil frankistaren aginduz 1960an eraitsi zuten euskal nazionalismoaren ikurra den Sabin Etxearen jatorrizko eraikina irudikatzen du.

Abendua: Acindino Quesadak egindako *Être Hors d'Espace* margolana. Aparteko sortzaile baten bizitzan eta ibilbide artistikoan bete-betean murgilduta dago lana. Quesadak estetika ikertu zuen, diziplinaren mugak hautsi eta artea pentsamendu, esperientzia eta ekintza gisa ulertu zuen.

2025. urtean, gure sare sozialen bidez erakusketa honetan ikusgai dagoen museoaren bildumako pieza batzuk ezagutzera eman ditugu, baita bildumaren atalean museoaren bildumako 390 objektu baino gehiago igo ere, publiko orokorrak noiznahi kontsultatzea izan dezan, ondarearen gaineko ezagutza sustatzeko.

Bisitariak egiten duten bisita-mota dela eta, audiogidak erabiliz egiten diren bisitak sustatu ditugu, erakusketaz gozatzeko modu pertsonalagoa eskaintzen baitu eta, horrez gain, oso harrera ona izan baitu bisitarien artean. Beste ikusle batzuek ere euren kabuz egiten dute bisita, QR kodeen laguntzaz. Kode horiei esker, ikusmen-ahalmen murrizta duten pertsonak erakusketaz goza dezakete lau hizkuntzatan, kodeoi lotutako soinu-fitxategiak baliatuz, bai eta erakusketan jorratzen dugun espazio bakoitzari buruzko informazio gehiago ematen duten artikuluak baliatuz ere.

Horrela, museoak aurrera egiten du bere bildumaren irisgarritasunarekin, inklusioarekin eta hedapen zorrotzarekin duen konpromisoan.

Audiogidez gain, bisita gidatuak eskaintzen jarraitu dugu, erakusketaren edukietan sakontzeko eta piezak euskal abertzaletasunaren historiaren testuinguruan paratzeko.

Aldi baterako erakusketak eta lankidetzak

1994tik gaur arte, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak ekoizpen propioko 154 aldi baterako erakusketa eta erakusketa ibiltari antolatu ditu. Erakusketa horiek hainbat gertaera eta pertsonaia historiko jorratu dituzte, bai eta euskal historiaren une garrantzitsuak ere, memoria kolektiboa hedatzen eta zaintzen lagunduz.

2025ean, honako erakusketa hauek egin ditugu:

5.1. Kirolariak erakusketa

2024an, Parisen egin ziren XXXIII. Olinpiaden testuinguruan, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak erakusketa-proiektu ibiltari bat bultzatu du Euskadi osoan zehar, euskal kirolari paralinpikoei eta haien taldeei eskainia. Erakusketa honen bidez, aparteko atleta horien ahalegina, dedikazioa eta hobetzeko grina gertutik ikusteko modua eman nahi diegu euskal herritarrei eta, orobat, atleta paralinpikoei eman merezi duten ikusgarritasuna.

26 panelek osatzen dute erakusketa, eta bertan, eremu paralinpikoan ditugun ordezkari onenen bizipenak eta esperientziak azaltzen dira. Istorio bakoitzak kirolari horiek erakutsi duten kemena, borroka eta kirolarekiko grina islatzen ditu, norberaren erronka guztiontzat ereduagarria den kirol-lorpen bihurturik.

Sabino Arana Fundazioan, funtsezkoa deritzogu kirolari horien aurpegia erakusteari, haien istorioak zuzenean ikus-entzuleen eskura jarrita. Dauden tokiraino iristeko egin duten ahalegina, dedikazio nekaezina eta kirolarekiko maitasuna dira erakusketa honen bizigarriak.

Erakusketaren osagarri, argitalpen txiki bat atera dugu, euskaraz eta gaztelaniaz, haien historia eta lorpenak jaso eta erakusketaren edukiak iraun dezan erakusketa-gunetik haratago, publiko berrietara iritsita.

Urtariletik ekainera Museoaren Ibañez de Bilbaoko egoitzan egon zen ikusgai, eta 1809 pertsona igaro ziren bertatik; horietatik, 756 emakume eta 1053 gizon. Ekainean, erakusketa Fikako frontoian jarri zen, Eperlanda Kultur Elkarteak antolatutako kirol ekitaldiaren baitan, eta bertatik 3.000 pertsona baino gehiago igaro ziren. Lehen geldialdi horri esker, proposamenaren harrera ona egiaztatzea izan dugu, eta

proiektuaren asmo ibiltaria indartu da, Euskadiko hainbat herritan barrena ibiltzea baita helburua, gure kirolari paralinpikoen adibidea eta memoria zabaltzen jarraitzeko.

5.2. «Mendirik Mendi. Euzko Mendigoizale Batza» erakusketaren ibiltaritza:

Erakusketa hau ehun urtetik gorako ibilbidea izan zuen Euzko Mendigoizale Batza elkarteari egindako omenaldia da. Hala, Sancho el Sabio Fundazioaren laguntzaz antolatu dugun «**Mendirik mendi. Euzko Mendigoizale Batza**» erakusketa Sabino Arana Fundazioaren egoitzan egon da ikusgai aurrean.

1.803 lagunek bisitatu dute; horietatik 873 emakumeak izan dira eta 930 gizonak.

Erakusketaren helburua mendigoizale taldeak osatu zituztenak ohoratzea da. Ehun urtetik gora bete zituen elkarte horrek Gerra Zibilaren eta diktaduraren errepresioa jasan zuen, eta herritarrek oraindik ez dute haren ondarea ezagutzen. Mendizaletasunaren bitartez, euskal gazte haiek euskara eta kultur adierazpen propioak berreskuratzeko lan egin zuten, sabindar ideala herrialdetik urrunen dauden txokoetara eramanez.

Erakusketa 8 panelek osatzen dute. Testuen egilea Aitor Miñambres dugu, Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoaren zuzendaria. Erakusketaren osagarri, objektuak dokumentuak eta argitalpenak ere erakusten dira, bai eta Sancho el Sabio Vital Fundazioaren dokumentu-funts oparoak lagatako dokumentazioa ere.

Erakusketa zortzi ataletan egituratuta dago:

1. 'Mendigoizaleak', herria maite duten mendizaleak eta euskal kulturaren hedatzaile handiak.
2. 'Askatasunaren eguzkia basotik irteten da', Mendigoizale Batzari buruzkoa. Elkarteak 1921ean eratu zen, Euzko Gaztedi-ren federazioaren babesean, eta lurraldeen arabera antolatu zen (18 talde Bizkaian, 10 Gipuzkoan eta 1 Araban).
3. 'Gazteria martxan' atalak mendigoizale abertzaleen jardura erakusten du. Elkarteak, batik bat, bi helburu zituen: Euskadiko geografia ezagutzea eta ariketa egitea, oso ohitura osasungarriak gazteentzat.
4. 'Itxaropen-garaiak': elkartearen banderari, San Andresen gurutze berdea ageri da, zuriaren gainean, guztia lauki gorri baten barruan.
5. 'Zorigaitzaren atarikoak'. Garai batean, sekulako zalaparta politiko eta soziala izan zen, Espainiako oligarkek lehengo pribilegioei eutsi nahi zirelako eta ezker iraultzaileak, berriz, benetako sozialismoa ezarri gura izan zuelako.
6. 'Mendigoizaleak bake-sasoian, gudariak gerra-garaian'.
7. 'Gudarien batailoiak', Euzko Mendigoizale Batza bi batailoitan sartu zen: 'Lenago il' eta 'Zergaitik ez', Mikel Aierdi eta Eugenio Orbegozo komandanteen aginduetara. Ekintza-burua Ángel Agirretxea izan zen eta 1.200 mendigoizalek bat egin zuten.

8. 'Klandestinitatea eta askatasuna'. Franco diktadorea hil ostean, berriro hasi ziren igotzen deiar-mendietara.

5.3. «Emakumeak Aberria Eginez. EAB» erakusketaren ibiltaritza

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatu du erakusketa Emakume Abertzale Batza-ren (EAB) sorreraren mendeurrena mendeurrenaren kariatz. Erakusketak duela 100 urte gizarte-eredu berri baten alde egin zuten emakumeek Euskadiren alde egindako jarduerak eta bizipenak ikusaraztea du helburu, ekimen eta lan ugari bultzatu zituztela.

Emakume Abertzale Batza 1922an sortu zen Euzko Gaztedi-ren babesean. EABk hasieratik erakutsi zuen bere arduetako bat aberriaren aldeko propaganda, hezkuntza, euskararen irakaskuntza, elkartasun zerbitzuak eta gizarte laguntza zirela. Mugimendu feminista horrek euskal emakume abertzaleak ahaldundu zituen, eta eragin handia izan zuen emakumeen ondorengo belaunaldietan eta, oro har, euskal abertzaletasunean.

Objektuz beteriko beira-arasek eta 24 panelek osatzen dute erakusketa, sei gai zabaletan antolatuta. Multzo horietan, elkartaren bizialdi osoan garatutako lana eta pentsamendu politikoa batzen dira: 1) EABren sorrera 2) EABren loraldia; 3) 'Jaungoikoa eta Lagi Zarra' (JEL) doktrina; 4) EAB eta hezkuntza; 5) EAB eta gizarte-laguntza eta 6) EAB gerran eta erbestaldian.

Erakusketaren bisitaldiaren amaieran, emakume gogoangarri haien lekukotzen berri ematen duen bideo bat proiektatzen da.

2025ean, leku hauetan izan da ikusgai erakusketa:

	Orduña	Durango
URTARRILAK 30 > OTSAILAK 21		APIRILAK 2-25
Bisitariak: 245 lagun (145 emakume eta 100 gizon)		Bisitariak: 62 lagun (23 emakume eta 39 gizon)

5.4 «Lauaxeta. Ametsen egilea» erakusketa


Bizkaiko Foru Aldundiak egin du erakusketa, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoaren laguntzaz.

«Lauaxeta, ametsen egilea» erakusketak Laukizko olerkariaren bizitza eta lanak hobeto ezagutzeko aukera emango digu, haren ametsak eta nahiak ardatz hartuta. 10 panelek osatzen dute, eta Lauaxetaren biografiaren mugarri nagusiak ezagutzeko ikusizko eta kontakizunezko ibilbide eskaintzen digute. Hala, panel bakoitzak Lauaxetaren 'amets' handietako bat ekartzen du gogora: haurtzarora, jas poetikoa, militantzia kulturala, konpromiso politikoa, aberriaren esnatzea... gerraren zoritxarra etorri eta, 1937an, hil zuten arte.

Panelez gain, orain dela gutxi berreskuratutako dokumentu argitaragabeak eta bestelako materialak daude ikusgai erakusketan, hala nola Leizaola Lehendakariaren testigantza, kartzelan sartu zuteneko erregistroa edo, 1938an, Bartzelonan erbestean zeuden euskal idazleen eskutik jaso zuen omenaldiaren lekukotasuna. Proiektu hau bultzatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak Lauaxeta eta bere ondare literario eta politikoa balioetsi nahi ditu, eta erakundeen konpromisoa berretsi nahi du memoria historikoaren eta euskal kulturaren hedapenaren alde.

Ibilbidean dokumentuen argazkiak eta irudiak daude ikusgai, horietako batzuk argitaragabeak, besteak beste, mitinetako kartelak, *Arrats Beran* lanaren jatorrizkoa, 1938ko otsailean Bartzelonako *Euzkadi* egunkariaren egoitzan euskal idazleen kolektiboak egin zion omenaldia, espetxeratzeko orria eta ondorengo epaiketako hainbat testu eta dokumentu, heriotza-zigorra ezarri zion idatzia barne. Horrek guztiak Lauaxetaren dimentsio gizatiar, literario eta politikora hurbiltzea ahalbidetzen du, modu zuzen eta hunkigarrian.

Erakusketaren ibiltaritza ondokoa izan zen 2025ean:



Gure pieza batzuk lagata, museo eta erakunde hauetako erakusketa iraunkorretan parte hartzen dugu:

- **Museo de l' Exili**
- **Bakearen Museoa Fundazioa**
- **Euskal Poliziaren Museoa**
- **Eusko Legebiltzarra**

Tailer didaktikoak

Tailerren helburu nagusiak hauek dira: sormena garatzea, haurren artean arte plastikoak sustatzea eta ezagutzea, euskara eta euskal historia sustatzea eta taldean nahiz bakarka lan egitea.

Aurten hainbat liburuxka sortu ditugu formatu digitalean gure eskaintzen berri emateko: ikastetxeetarako tailer didaktikoak, aisialdiko tailer didaktikoak eta Gabonetako tailer berariazkoak.

2025ean, 85 jarduera didaktiko egin ditugu, dozena bat ikastetxek baino gehiagok parte hartu dutela, eta Leioako campuseko Arte Ederren Fakultateko unibertsitateko ikasleen parte-hartzearekin. Guztira 1599 pertsona bertaratu dira, sexuaren arabera banakatuta: 787 gizonezko eta 803 emakumezko, 4 eta 21 urte bitartekoak.

MUSEOEN EGUNA

Urtero, 1977az geroztik, Museoen Nazioarteko Kontseiluak (ICOM) Museoen Nazioarteko Eguna ospatzen du, eta eguna ezinbesteko hitzordu bilakatu da museoek topaketa kulturala, ezagutza partekatua eta gizarte-kohesioa sustatzen betetzen duten eginkizuna aldarrikatzeko. Ekitaldi horren helburu nagusia da herritarrak museoen zereginenez sentsibilizatzea alderdi hauetan: herrien arteko elkar ulertzea, lankidetzeta eta bakea eraikitzea.

2025eko edizioan hautatu den leloak —«Museoen etorkizuna etengabe aldatzen ari diren komunitateetan»— museoek gizarte-, teknologia- eta ingurumen-erronka sakonak nagusi diren mundura egokitzeko duten gaitasunari erreparatu zion. Gai hori bat dator ICOMek Dubain egin zuen 27. Konferentzia Orokorrekin, eta museoek espazio inklusibo, berritzaile eta komunitateei estu lotuta eboluzionatzen jarraitzeko beharra azpimarratu zen bertan.

Museoen Egunak, gainera, museo-lanarekin bereziki lotutako Garapen Iraunkorreko hiru Helburu nabarmendu nahi ditu:

8. GJH: Tokiko enplegua eta ahalduntze komunitarioa sustatzea, hezkuntza-programen bidez.

9. GJH: Teknologien eta sormenaren bidez berrikuntza eta irisgarritasunaren hobekuntza bultzatzea.

GJH 11: Hiri-garapen iraunkorra sustatzea ikuspegi kultural, erresiliente eta inklusibo batetik.

ICOMeko kide den aldetik, Euskal Abertzaletasunaren Museoak bat egin zuen 2025ean ere nazioarteko ospakizun horrekin, publiko guztiei zuzendutako proposamen berezi bat

garatuta. Maiatzaren 19tik 23ra, museorako sarrera doakoa izan zen ohiko ordutegian, eta bisitari guztiek oroigarri bat jaso zuten.

Gainera, bilduma iraunkorreko pieza nabarmenetako bat agerian nahi izan zen: Europako Karta Etnografikoa (1918). Mapa historiko hori Europako identitateak birdefinitzeko une garrantzitsuan egin zen, eta etengabe aldatzen ari den kontinente batean dibertsitateari, kideasunari eta memoriari buruz hausnartzeko

MAISUTZA-ESKOLA: KARTOIZKO BILGARRIAK

2025ean, unibertsitateko ikasleentzat antolatutako jarduera didaktikoak egiten jarraitu dugu, master class direlako jardunaldi batzuen bidez. Horietan, Leioako campuseko EHUko Arte Ederren Fakultateko ehun ikaslek baino gehiagok hartu dute parte.

Saio horien helburua etorkizuneko profesionalak kultura-ondasunen kontserbazio-, manipulazio- eta babes-prozesuetara hurbiltzea da, batez ere, ikuspegi praktikoa baliatuz. Helburu nagusia museoko bildumako piezen beharretara egokitutako baliabide urriak erabiliz bilgarri espezifikokoak nola diseinatu eta egin erakustea izan zen.

Jardunaldi hau erabiliz, Museoak gai praktiko batzuk jorratu nahi ditu: nola egin bilgarri espezifikoko batzuk baliabide gutxirekin?, hau da, nola asmatu eta nola sortu bilgarri espezifikokoak gure bildumako objektu jakin batzuk gordetzeko. Bertaratutakoek kutxak, karpetak eta garraiorako bilgarriak sortu zituzten, kartoia oinarri hartuta, azidorik gabeko xaflak baliatuz. Master class bat egin da eta 41 pertsonak hartu dute parte horretan; horietatik 33 emakumezkoak ziren 7 gizonezkoak.

IHES-ARETOA

Aurten, areago landu dugu gure bi ihes-aretoen zabalkundea, gaztelaniaz zein euskaraz egin daitezkeenak, bi jolas edo erronka eskainita. Lehenengoan, ikurrinaren jatorrizko diseinua aurkitu eta babestu beharko da, ustekabeko sute batetik libratzeko, sute horrek dokumentua betiko galaraz baitezake, eta, horrekin batera, euskaldunen memoria kolektiboaren zati bat.

Bigarren erronkan, 'Alava sarea espedientea' izenekoan, tropa frankistek okupatutako Euskadira joango gara. Jolas horretan, Bilboko Verdes liburu-dendan ezkutaturik dagoen isilpeko informazioa seguru jartzea da helburua, polizia frankisten eskuetara heldu aurretik; izan ere, informazioa atzemanaz gero, sareko kideak harrapatuko lituzkete eta, gainera, Duesoko espetxean gatibu dauden ehunka preso hilko lituzkete.

'Ihes-areto' horren berezitasuna hauxe da: benetako gertaera historikoetan oinarritzen dela. Azken batean, pedagogia egiteko beste modu bat da, jolasa eta aisialdia erabiliz, Euskadiko historian jazo diren gertakizun esanguratsuak ezagutarazteko xedez.

Gure room ihesbidearen ezaugarri nabarmenetako bat Euskadiko historiako benetako gertakariekin duen lotura estua da. Proposamen honek jolasa tresna pedagogiko eraginkorra bihurtzen du, parte-hartzaileak gure iraganeko gertakari garrantzitsuetara hurbiltzeko aukera emanez, esperientzia dinamiko, parte-hartzaile eta publiko mota guztientzat eskuragarri baten bidez.

2025ean, hirurogeita sei jolas egin ditugu eta 290 pertsona hurreratu dira; horietatik 161 emakumeak izan dira eta 161 gizonak. 2025ean zehar, museoak ekimen hau sendotu du dibulgazio historikoaren bide alternatibo gisa.

2025ean, hirurogeita sei jolas egin ditugu eta 290 pertsona hurreratu dira; horietatik 161 emakumeak izan dira eta 161 gizonak. A lo largo de 2025, el museo ha consolidado esta iniciativa como una vía alternativa de divulgación histórica.

Gero eta parte-hartze handiagoak erakusten du interesa badagoela ikaskuntza, aisia eta memoria historikoa uztartzen dituzten formatu berritzaileen gainean.

Hitzaldiak / Dokumentalak

2024an, hitzaldi ziklo berriak hasi ditu Museoak, eta erantzun bikaina jaso dugu parte-hartzaileen aldetik.

*EMAKUMEAK ABERRIA
EGINEZ. 100 URTE
ERAKUSKETAREN
HITZALDIA*

UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Karmele Perez Urraza, Begoña Bilbao Bilbao eta Gurutze Ezkurdia Arteaga (*Garaian* ikerketa-taldea) erakusketaren komisarioen eskutik, bisita gidatu eta hitzaldi bana egin ziren, ehun urteko elkarte horrek herrialdearen garapenerako eta emakumeen eskubideetarako izan zuen garrantzia azaltzeko.

150 pertsona bertaratu ziren, horietatik 85 emakumeak eta 65 gizonak izan zirela.

*ESPEDIZIOAK ZIKLOA
SAMI ITSASOA
DOKUMENTALA*

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak *Mar de Sami 2020* dokumentalaren proiektioa antolatu zuen. Aitor González Iturbek zuzendu zuen eta Zigor Egia, Rizos Amat eta Manolo Taibo mendizaleak ditu protagonista. Ondoren, solasaldi bat izan zen Zigor Egia filmaren gidoilari eta ekoizlearekin.

Hiru mendizaleek Finlandiako aintzira handienetakoa eta Europako seigarren handiena den Inari lakutik eskiak eta pulkak (lerak) erabiliz egindako zeharkaldia kontatzen du dokumentalak. Ibilbidean zehar, bertan dauden 3.300 uharteetako batzuetan eman zuten gaua, eta bertan egunsenti boreala ikusteko aukera izan zuten. Dokumentalak samien kulturari ere balioa ematen dio, Europan bizirik dirauen eta bere tradizioak babesteko borrokan jarraitzen duen herri indigena bakarrari.

Espedizioa 2020ko martxoan amaitu zen, lehen konfinamenduaren bezperan. Emanaldian, Zigor Egiaren (Amurrio, 1975) ibilbidea nabarmendu zen. Munduko mendikate askotan izandako mendizalea da Zigor, mendiko dokumentalen zuzendari eta ekoizlea eta Euskal Mendizale Federazioaren (FVM) presidenteordea.

48 pertsona izan ziren emanaldian, horietatik 15 emakumezkoak eta 33 gizonzkoak.

AITZINDARIAK ZIKLOA
ARZELUS ARRIETA'TAR
AMALE. NERE OROIMENAK

Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatzen duen «Emakume apartak» hitzaldi-zikloaren barruan, *Arzelus Arrieta'tar Amale Nere oroimenak* liburua aurkeztu zen. Egileak, Jon Andoni *Jonan* Zinkunegi Arzelusek –Amalaren semeak–, amak idatzitako *Nere oroimenak* eta *Nere ekintzak* testuetan oinarrituta egin du lana, eta bere ekarpenekin osatu ditu.

Liburuak bi bertsio ditu: jatorrizkoa, euskarazkoa, eta jatorrizkoaren itzulpena ez den gaztelaniazkoa. Amale giro politiko eta kultural euskaltzalearen inguruan bizi izan zen etxean gazte-gaztetatik. Liburuak Amalaren bizitza pribatuaren eta publikoaren hainbat alderdi azaltzen ditu. Familiari gagozkiola, gerora senarra izan zen Andonirekin izan zituen ezkongai-harreman eta bizipenak jorratzen dira, bai eta senar-emazteen gertaerak ere; bederatzi seme-alaba izan zituzten, 1949tik 1964ra; horiek hamaika biloba ekarri zituzten mundura eta azkenek bederatzi birbiloba eman zizkieten familiari.

Arlo publikoari doakionez, lanak nabarmentzen du irratian euskaraz aritu zen lehen emakume esataria izan zela (kapitulu horretan esaten denez, Amalaren aitak, Luzearrek, euskaraz egindako lehen irratsaioan parte hartu zuen).

Antzerkiaren munduan, liburuak dio Poxpolinak taldean parte hartu zuela hasiera-hasieratik eta urte askotan aritu zela antzeztzen. Elbira Zipitriarekin eta beste andereño batzuekin euskaraz eta euskarazko irakasle gisa egindako lanari buruzko aipamenak aurkituko ditu irakurleak lanean, ekintzailatza politikoari buruzkoak edo katixima-irakasle gisa egindako lanaren ingurukoak ere. Amaitzeko, Amale Arzelusi bizitzako azken urteetan egin zizkieten omenaldietako batzuk gogorarazten ditu liburuak.

Bi hitzaldi egin ziren: bata Donostian eta bestea Bilbon.

101 pertsona bertaratu ziren itzaldiotara, horietatik 48 emakumeak eta 53 gizonak zirela.

*GUZTIONTZAKO KIROLA
ZIKLOA
BIZI CYCLE TOURS*

Virginia Berasategi atleta ohiak, 2010eko Sabino Arana saridunak, martxoaren 26an aurkeztu zuen SAFen bere proiektu berria eta berritzailea: Bizi Cycle Tours. Euskadiko paisaiak, kultura eta gastronomia bizikleta ibilbideak direla medio ezagutzea helburu duen ekimena da.

Proiektuak lagunarteko txirrindularitzarekiko zaletasuna sustatzen du, plater tradizionalak, bertoko edariek kultur jarduerak eta ekintza ludikoz gozaturak; Virginia Berasategik berak entrenatzen emandako urteetan egin dituen ibilbideak dira, aurkintza eta bazter xarmangarriak beterikoak. Hori guztia modu pertsonalizatuan eskaintzen da, kirolari profesional ohien, gidarien, bideografoen, laguntzaileen, fisioterapeuten eta abarren eskutik.

Virginia Berasategik, Estatuko triatletarik onentzat jotakoak, bi hamarkadatik gorako ibilbide nabarmena du, eta nazioarteko erreferentziako probetan parte hartu du, hala nola Hawaiko Ironman proban, Nizan, Monakon, Wildflowerren edo Wiesbaden. Bere palmaresean, distantzia luzeko munduko triatloi txapelketa (2003), distantzia luzeko Europako bi txapelketa (2009 eta 2010) eta Ironman erdiko Europako bi txapelketa (2007 eta 2008) daude, besteak beste.

Bere sakrifizio-gaitasuna eta gaintzeko grina etengabeak izan dira bere ibilbidean zehar, Euskadiren izena nazioarteko proben gailurrera eramanda. Ekintzaileen aro berri honetan, Berasategik lurraldearen edertasuna txirrindularitzaz, tokiko gastronomiaz eta kultur jarduerak gozatzen dutenekin partekatu nahi du.

32 pertsona bertaratu ziren hitzaldira, horietatik 20 emakumeak eta 12 gizonak zirela.

*ITSASOA,
BERDINTASUN LURRALDEA
ZIKLOA
'TRASATLÁNTICA'
KONPAINIAREN
ONTZIAK: GERRAKO UMEAK
ETA ANTIBOTIKOAK
ERABILTZeko AUKERA*

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatzen duen «Itsasoa, berdintasun-lurraldea» zikloaren barruan, apirilaren 8an, Juan Carlos Díaz Nabigazio Zientzien Kanarietako Akademiako presidentek eta Javier Garaizar Mikrobiologiako doktoreak Gerra Zibilean eta gerraostean Transatlántica konpainiako itsasontziek egindako lan humanitarioa jorratu zuten.

Hain zuzen ere, konpainia horretako itsasontziak hertsiki loturik daude Bilborekin.

Konpainiaren transatlantiko handi asko eta asko Sestaoko *La Naval* ontzian edo Bilboko *Euskalduna* ontzian tresnatu zituzten, eta gainera, gerra garaian, euskal diasporarekiko loturarena egin zuten, milaka ume euskaldunen ebakuazioa gauzatu zutelako tropa frankistek lurraldea berehala okupatuko zutelakoan eta, gerraostean, antibiotikoak ekarri zituzten eta gaixotasun infekziosoen ziozko heriotza-tasa nabarmen murriztu zuten.

Hitzaldian, ontzi horiek Espainiar Estatura garraiatutako lehen antibiotikoei (sulfamidak, penizilina, estreptomizina eta mikrobioen aurkako beste batzuk) buruzko datu ezezagunen berri eman ziren. Sendagai horiek goitik behera aldatu zuten gaixotasun infekziosoen tratamendua, eta izugarri murriztu zuten morbiditatea; tuberkulosiaren kasuan, estreptomizina eta ondorengo tuberkulostatikoek nabarmen hobetu zuten gaixoen osasuna eta bizi-itxaropena. Hori guztia Bigarren Mundu Gerraren amaieran gertatu zen, autarkia, gosea eta estraperloa nagusi ziren gerraosteko testuinguru gogorrean.

75 pertsona bertaratu zirne, horietatik 33 emakumeak eta 42 gizonak zirela.

MUGARIK GABE ZIKLOA
LA VIDA EN PAUSA
DOKUMENTALA

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatzen dituen ekintzen esparruan, «Zinema» sailaren barruan, maiatzaren 20an, «La vida en pausa» (Bizitza pausaldian) film dokumentala eman zen.

Olaia Peñas eta Juantxu Álvarez ditugu protagonistak eta Susana Miravallesek zuzendu du dokumentala. Filmak fibrosi kistikoak jotako gaixo baten bizitza, hain zuzen ere, Olaiarena, kontatzen du. Olaiak bi transplante izan zituen (bibiriketakoa eta giltzurrunetakoa) eta bera izan zen estatuan bi biriken transplantea egin zioten lehen pertsonetako bat.

Era berean, dokumentalak «bizitza pausaldian» ezinbestean jarri behar izan dutenen itxaropena, beldurra, borroka eta garaipena erakusten digu, bizitzeko organo baten zain daudela.

Film dokumentalean, medikuen eta kirurgialarien ahotik entzun dezakegu biriketako transplanteen teknika 90eko hamarkadatik hona zelan bilakatu den, eta, bestetik, Olaia bizitza osoan Gurutzetako ospitalean tratatzen aritu diren profesionalen testigantzak jaso dira.

Dokumentala ikusi ondoren, bertaratutakoak transplanteen erronka etiko eta sozialei buruzko iritzi-trukean izan ziren Olaia Peñasekin, bai eta herritarrak organo-emateak dakartzan onura eta balio handiaz sentsibilizatu eta kontzientziatzeko beharrari buruz ere.

30 lagun bertaratu ziren, horietatik 16 emakumeak eta 14 gizonak zirela.

KONTSERBAZIOARI
BURUZKO JARDUNALDIAK
PREBENTZIOZKO
KONTSERBAZIOARI
BURUZKO
VI. JARDUNALDIAK

Laneratzeko bidean hainbat espezializazio-esparru ezagut ditzaten, ikasleei beharrezko tresnak eskaintzea helburu duten jardueren esparruan, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak hitzaldi bat antolatu zuen seigarren urtez jarraian EHUko Arte Ederren Fakultateko ikasleentzat, museoko materialen prebentziozko kontserbazioari buruz.

Begoña Aristegik eman zuen hitzaldia. Arte Ederretako lizentziaduna da eta zaharberritzean eta prebentziozko kontserbazioan espezializatua. Besteak beste, Museo Arkeologiko Nazionalean, Museo Etnologiko Nazionalean, New Yorkeko Guggenheim Arte Moderno eta Garaikideko Museoan eta Bilboko Guggenheim Museoan egin ditu lankidetzak Aristegik.

Bildumak zaintzen aditua den aldetik, Aristegik gure museoan ezarritako prebentziozko kontserbazio-prozesua jorratu zuen, horretan aholkulari jardun baitu.

41 lagun bertaratu ziren, horietatik 34 emakumeak eta 7 gizonak zirela.

GAZTE EKINTZAILEAK
ZIKLOA
DISEINUA, ARTEA ETA
OFIZIOA: BEGIRADA BAT
EUSKADITIK MUNDURA

Euskal Abertzaletasunaren Museoak «Gazte ekintzaileak» zikloaren beste saio bat antolatu zuen azaroaren 26an, euskal gazteak ekintzaile dituzten proiektu berritzaileak ikusarazteko. Gabriela Sagarminaga diseinatzaile bizkaitarra izan zen gonbidatua, diseinua, artea eta artisautza garaikidea uztartuz nazioarteko proiektzioa lortu duen Sagarminaga Atelier delakoaren sortzailea. «Diseinua, artea eta ofizioa: begirada bat Euskaditik mundura» izenburuaren ildoan, Sagarminagak bere lanaren oinarri den ibilbide sortzailea partekatu zuen, tradizioaren eta abangoardiaren arteko elkarriketak gidatuta.

Hitzaldian, argi geratu zen tokiko tailer bat kultur eragile global bihur daitekeela nortasunari eta memoriari uko egin gabe. Nazioarteko lankidetzak, artisautza garaikidea eta gure lurraldean sakon errotutako begirada nabarmendu zituen Sagarminagak sormena, identitatea eta berrikuntza balioan jarri zituen hitzaldian.

Hitzaldiari esker, hurbiletik ezagutzea izan genuen Sagarminagaren sortze-prozesua, bai eta mugimendua, eraldaketa eta organikoaren eta teknologiaren arteko elkarriketa arakatzeko modua ere.

Gabriela Sagarminaga Roldán Sagarminaga Atelier deritzonaren sortzailea eta zuzendaria da. Bartzelonan modaren munduan hasi ondoren, Latinoamerikatik barrena ibili zen gizarte-berrikuntzako proiektuak dokumentatuz. Bilbora itzuli zenean, artisautzaren, lurraldearen eta naturaren arteko harremanari buruzko ikerketa hasi zuen, eta, horren ondorioz, espartzuarekin lan egin zuen, egungo lanaren ardatz nagusia. Gaur egun, luxuzko etxe eta nazioarteko kultura-erakundeentzako piezak eta instalazioak garatzen ditu.

31 pertsona bertaratu ziren, horietatik 19 emakumeak eta 12 gizonak zirela.

LIBURUEN TXOKOA
ZIKLOA
ELVIRA RUEDA.
MARKINA-XEMEIN
VITORIA-GASTEIZ.
OLERKIA

Abenduaren 2an, Elisa Rueda olerkaria, irakaslea eta aktorea izan zen Fundazioan, *Liburu en Txokoa* deritzon ekimenean parte hartzeko. 2023. urtean ekin zion jarduera horri Euskal Abertzaletasunaren Museoak, entzuleak euskal literaturara hurreratzeko asmoz, betiere idazleen eskutik.

Ruedak berebiziko garrantzia dauka egungo olerkigintzan eta Gasteizko eta Arabako Poetak Maiatzean Nazioarteko Poesia Jaialdiaren sortzaile eta sustatzailea da. Bere bizi-ibilbideaz mintzatuko zaigu, berekin daukan barru-barruko harremana aletu zuen eta, azkenik, gaur egun poeta izateaz zer ulertzen duen azaldu zigu. Hitzaldian, poesiak komunitatea ehundu, hiria dinamizatu eta belaunaldien arteko esparru bihur daitekeela aldeztu zuen.

Poetak Maiatzean jaialdiak ehunka pertsona batzen ditu udaberrian eta estatuko nahiz nazioarteko ekitaldi sonatu bilakatu da; hala, Ruedak bultzaturiko kultur egitasmorik nabarmenetakoa da. Sari eta golarde ugari jaso ditu olerkariak kultura sustatzen egindako lanagatik, besteak beste, Gasteizko Urrezko Zeledon saria edo Déccellenza alla Cultura – Città del Galateo saria (Erroma).

Bisitaldian, solasaldi irekia eskaini zuen Ruedak, *Liburu en txokoa* ekimenaren esparruan, hots, prozesu sortzaileak deskubritzeko, irakurketa sustatzeko eta ikusleen eta egileen arteko topaketa hurbila bultzatzeko museoak diseinatu duen espazioan.

37 lagun hurreratu ziren, horietatik 14 gizonak eta 23 emakumeak zirela.

Norbanakoen dohaintzak / Kontsultak

2025eko ekitaldian, 1.200 pieza inguru jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Museoan.

Objektu ugari jaso ditugu dohaintzan, sail askotan gordetzekoak: arte grafikoak, dekorazio-arteak, ehun-funtsa...

Hori guztia berrogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker.

Euskal Abertzaletasunaren Museoko funtsak kontsultatzeari dagokionez, 403 kontsultari erantzun diegu, ondokoek eginda edo horietan erabiltzekoak: norbanakoak, erakundeak, ekoiztetxeak, udalak, aldizkako argitalpenak, telebistako programak, fundazioak, Eusko Jaurlaritza, museoak...


Argazki-funtsari gagozkiola, 530 irudi baino gehiago erabili dira, Facebook eta Instagram sare sozialetan zabaltzeko eta DEIA egunkarian argitaratutako «Historias vascas» saileko artikulua irudiz hornitzeko.

Webgunea / Sare sozialak

Museoaren web-orria (www.museodelnacionalismovasco.eus) informazioz hornitzen jarraitu dugu. Bertan, museoak antolatutako Nor gara gu? erakusketa iraunkorrari,aldi baterako erakusketei, hitzaldiei, dokumentalei eta museoaren bildumari lotutako eduki guztiak kargatu ditugu. Atal guztietan, bisitarien kopurua eta kontsultena igo da aurreko urteetan izandakoen aldean.

Guztizko kopuruei begiratuta, museoaren webguneak 28.232 bisita eta 77.127 klik erregistratu ditu aurten. Trafikoaren gorakada hori ia-ia egunero informazioa kargatzearen ondorio zuzena izan da, bai dohaintza berrien, bai bildumaren, bai «Bitxiak» atalaren eta egutegian jasotako museoaren jardura guztien ondorioz. Webgunea sendotu egin da, eta funtsezko tresna da zabalkunderako eta kontsulta espezializaturako.

Web-orriaren bistaratzeak eta erabilerak nabarmen egin dute gora, eta kanal horren bidez hogeita hamar kontsulta baino gehiago jaso dira, batez ere, museoaren bildumaren ingurukoak. Aipatzekoa da aurten bilduma handitu egin dela, 320 erregistro berri gehituta, eta horiek guztiak webgunetik eskura daitezke.



Sare sozialetan izandako jarduerari dagokionez, emaitzak ere esanguratsuak izan dira.

- Facebooken**, 58.272ko inpaktu soziala lortu da, eta argitalpen ikusiena erakusketa iraunkorren txertatutako pieza berriari dagokiona da, 2.226 ikustaldi izan dituela. Ondoren, bitxiari buruzko argitalpena, 2.135 ikustaldirekin; erakusketa iraunkorreko Jose Arrueren margolanak 1.267 ikustaldi izan zituen; Euskal Artzainak Ameriketako Museoaren lankidetzari lotutakoak 1.163; eta Elisa Ruedaren hitzaldiak, «Liburuen txokoa» zikloaren barruan, 1.103 ikustaldi izan zituen.
- Instagramen**, inpaktu soziala 173.289 ikustaldikoa izan da. Bereziki nabarmentzekoa da 1985eko Alderdi Egunari buruzko argazki-funtsaren atala, 15.600 ikustaldi izan dituela. Ondoren, «Kiroolariak» erakusketa Fikan (9.501); Jose Arrue margolariaren pieza erakusketa iraunkorren (8.008); dendako produktu berria (7.528); eta Virginia Berastegui *Guztiontzako Kirola* zikloaren barruan emandako hitzaldia (6.200 ikustaldi).
- Museoak **TikTok** sarean izan duen trafikoari dagokionez, 87.000 ikustaldi zenbatu dira, eta nabarmentzekoak dira bitxiaren atalari doakzioen 14.000 ikustaldiak eta argazki-funtsari atxikitako 2.200 ikustaldiak. Guztira, 61.000 erabiltzaileengana iritsi gara sare sozial horretan, eta horietatik 37.000 berriak izan dira; emaitzak agerian jartzen du sare horrek duen gaitasuna publiko berriak erakartzeko.

- Bestalde, **X sarean** 70 ikustaldi izan dira, batez beste, argitalpen bakoitzeko, eta bereziki aipagarria da dendako artikuluei buruzko *post* bat, 1.500 ikustaldi izan zituela, baita Jose Arrueren margolanari dagokiona ere, 995 ikustaldi izan zituela.

Azkenik, urtean zehar, museoak etengabe parte hartu du Museotik eta Kulturklik plataformetan, eta bere jarduera guztiei buruzko informazioa zabaldu du. Lankidetzaz erregular horri esker, museoaren programazioaren eta bildumaren ikusgarritasuna handitu da, eta eskuragarri dauden plataforma kultural guztietan duen presentzia indartu da.

09 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA

Sabino Arana Sariak 2024. Zazpi amets, kidetasun sendo batek loturikoak: KONPROMISOA

Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien 36. edizioa ospatu zuen urtarrilaren 26an, Imanol Pradales Lehendakariak buru jardun zuela. Ekitaldian, Jean-Claude Larronde abokatu eta historialaria; Leopoldo Martínez abokatu eta politikari venezuelarra; Nafarroako Acción Contra la Trata elkarteari atxikitako *Las Poderosas* emakume-taldea, Javier Iruretagoiena (Jabo Irureta) futbol-jokalari eta -entrenatzailea, Stéphane Séjourné Europako Batzordeko Oparotasuna eta Industria Estrategia sustatzeko presidenteorde exekutiboa, En Tol Sarmiento-ETS musika-taldea eta Iñigo Urkullu Lehendakaria izan ziren saridunak.



Fundazioaren Patronatuko kideek lagunduta, Sabino Arana Fundazioaren (SAF) presidente Mireia Zaratek Sabino Arana Sarien 36. edizioan aukeratutako en inguruabarrak azaldu zituen, sariak banatu zituen gero Patronatuko kideen laguntzaz.

Jon Uriartek eta Ainhoa Larrazabalek ekitaldia gidatu zuten eta Eñaut Elorrieta musikariak girotu.

Jean-Claude Larronde izan da Arriagako antzetzokira igo eta sarietatik eskerrak eman dituen lehenengoa. Abokatu eta historialari lapurtarrak Herri honen memoria eta nortasun nazionalari heltzen jakin izan du bere lan ugariei esker, eta oroipenezko hitzak izan ditu gaurdainoko bidean lagun izan dituenentzat. Era berean, denborak arrazoia

emango digula adierazi zuen. Amaitzeko, konfiantza osoz esan zuen «gure alderdi zaharrak independentziara eramango gaituela».

Ondoren, Leopoldo Martínezek jaso zuen saria. Estatu Batuetako gizartean erabat bertakotuta dagoela, hango herritarra bailitzan, bere ezaupide ekonomikoetan eta AEBko Alderdi Demokratikoa duen konpromiso politikoan oinarrituta, onena eskaintzen dio gaur egun bizileku duen herrialdeari, bere jaioterria, Venezuela, eta Euskadi, euskal sustraiak dituela eta, bistatik galdu gabe.

Era berean, Ameriketako Demokrazia eta Garapenerako Zentroan lan egiten duen taldeak sortutako harreman sendoa nabarmendu zuen. «Bilgune horretatik, aro konplexu honetako erronka publikoak, nazioartekoak eta politikoak lantzen jarraituko dugu, betiere polarizazio politiko suntsitzaileari aurre eginez, demokrazia indartzeko xedez. Eta, jakina denez, eskerrak eman nahi ditut, bereziki, Venezuelako demokrazia berreskuratzeko elkarrekin egiten dugun ahaleginagatik», esan zuen.

Ondoren, antzokira bertaratutako txalo zaparrada jaso zuten *Las Poderosas* taldearen izenean jardun duen ordezkariak. Taldea aurrendaria da Nafarroan emakumeen sexu-esplotazioaren aurka borrokatzen eta hura desagerrarazteko ahaleginetan, laguntza-sareak sortuta. Joy Ogbeide, Lydia Osifo Festus, Grace Ogbeifun, Vivian Dickson eta Favour Roberts igo ziren antzezlekura.

Obidek saria partekatu nahi izan zuen «Acción Contra la Trata/Emakumeen Salerosketaren Aurkako Ekintza Taldearekin eta bertako lantaldearekin, emakumeei ematen dieten babesa eta enpatiagatik: Gaëlle, Giselle, Alicia eta Lydia».

Euskal futbolaren ikur nagusietako batek, Javier Iruretagoiena Amianok, «Jabo Irureta» izenez ezagunagoak, hunkituta jaso zuen saria. Idoia alabak lagunduta, aitari eta amari eskaini zien donaria, gurasoek irakatsi baitzieten berari eta anai-arrebei «familiarren, langile izatearen, ikastearen eta eskuzabalak izatearen garrantzia».

Iruretak jokalaria gisa egindako ibilbidea gogoratu zuen, besteak beste, Real Union taldeko gazteen kategorian, Atletico Madril eta Athletic klubetan. Sasoi hartako pasadizoen artean, Peleren Santos taldearen aurkako partida, 1976an, eta Realaren eta Athleticen arteko partidari, Atotxan, ikurrina atera zuteneko gogorarazi zituen.

Arriagako agertokira igotzen hurrengo Stéphane Séjourné izan zen, Europako Batzordeko Oparotasun eta Industria Estrategiako presidenteorde exekutiboa, kontinenteko herri eta nazio guztiak sartzen diren Europa batu, demokratiko eta indartsu baten defendatzaile sutsua.

«Administrazio berria jabetu da botereaz Estatu Batuetan. Ingurumari horretan, mundua eredu ideologiko oso desberdinetara lerratzen ari da, batzuetan, eredu kontrajarrietara. Zalantzarik gabe, testuinguru horrek erronka ugari dakarzkigu. Alabaina, aukera ere bada Europarentzat, europarentzat. Ingurumari horretan, ez dugu hautabiderik. Europak bere eredia berretsi eta defendatu behar du» adierazi zuen Séjournék.

Iñigo Etxezarretak, En Tol Sarmiento edo ETS musika-taldeko liderrak, saria jasotzeko lau arrazoi nabarmendu zituen: nortasuna, iraunkortasuna, soiltasuna eta eraldaketa.

«Arabako Errioxak oinarri sendoa eman digu gure zerizana eraikitzeko. 20 urtez, presarik eta lasterbiderik hartu gabe hazi gara, aro bakoitza ereiten, gozatzen eta errespetatzen, gure burua naturaltasun osoz erakusten, alegiazko pertsonaiarik sortu barik. Eta musikaren industria sakon aldatu bada ere, nire ustez, ETSk eboluzionatzen jakin izan du hasierako zerizana galdu gabe. Hala ere, horren guztiaren gainera, bada zerbait garrantzitsuagoa: euskara. Guztiaren bihotza da», adierazi zuen Etxezarretak.

Arriagako antzezlekura igo zen azken sariduna Iñigo Urkullu Lehendakaria izan zen, antzokita joandakoak zutiek eta txaloka zeudela. Hamabi urte Ajuria Enean. Eta hamabi urte horietan, Euskadik izugarritzko aurrerakuntza izan du bizikidetzan, bertako gizarte eta ekonomia nabarmen garatu dira, eta sinesgarritasun handiz egin die aurre arazo eta krisi larriei, hala nola pandemiari.



Urkullu Lehendakariak eskerrak eman nahi izan zizkion euskal gizarteari «Eusko Jaurlaritzari emandako konfiantzagatik», eta adierazi zuen «gure iparra pertsonetikiko konpromisoa izan dela beti».

«Urte hauetan, Herria gidatzeko ardura izan dugunok gogotik lan egin dugu gure autogobernua defendatzen eta hobetzen, Euskadi aurreratuagoa eta bidezkoagoa utz diezaiegun ondokoei» esan zuen Urkulluk.

Urkulluk adierazi zuen «pribilegiatutzat» sentitzen zuela bere burua Lehendakariaren makila izateagatik, eta hamabi urte horietan berarekin egon diren pertsona guztiei eskani zien saria.

10 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioaren izaera pluralak aukera eman dio beste erakunde eta organismo batzuetako (Euskaltzaindia, Gogora, udalak, Helduak Elkartea, ikastetxeak...) ordezkarietako topaldiak egiten jarraitzeko, euren jardueragatik sortutakoez gain.

2024an honako hauek izan dira:

- martxoak 8, larunbata: Castelaori Txurdinagako Europa parkean egindako omenaldian parte hartu genuen.
- martxoak 10, astelehena: Parisko 2024ko jokoetako euskal paralinpikoek «Kirolariak» erakusketa bisitatu zuten Euskal Abertzaletasunaren Museoa.
- martxoak 31, astelehena: Euskaltzaindiaren euskararen corpus berriaren aurkezpenan parte hartu zuen Fundazioak.
- apirilak 5, larunbata: Lekeitioko sorreraren 7. mendeurreneko ekitaldian parte hartu zuen Fundazioak. Iñaki Goigana historialariak jardun zuen.
- apirilak 11, ostirala: Euskal Herria Batera ekimenaren kultur ekitaldian parte hartu zuen Fundazioak Donostiako Kursaal Jauregian.
- apirilak 14, astelehena: Bediaga komandantearen familiak Saibigain mendiko batailan 1937an eroritako gudariei eta milizianoei antolatutako omenaldian parte hartu genuen.
- apirilak 26, larunbata: Gernikako bonbardaketaren 88. urteurrenaren kariaz, sarraski hura gogorarazteko ekitaldian parte hartu genuen.
- maiatzak 3, larunbata: Nazismoaren eremuetara deportatutako euskaldunak eta haien familiak omentzeko Gogorak antolatutako «Deportazioaren Memoria» ekitaldian parte hartu zuen Fundazioak, Ficoban.
- maiatzak 23, ostirala: Lauaxetaren jaiotzaren 120. urteurreneko omenaldian parte hartu zuen Fundazioak Laukizen. Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan egindako erakusketan.
- maiatzak 26, astelehena: Europako Demokraten Institutuak Napolin (Italia) antolatutako «Kulturaren, kultura-diplomaziaren eta sormen-industriaren eginkizun eraldatzailea» hitzaldian parte hartu zuen Fundazioak.
- ekainak 2, astelehena: Euskaltel Fundazioaren 25. urteurrenaren ospakizunetan parte hartu zuen Fundazioak.
- ekainak 22, igandea: Gerra Zibileko gudari, miliziano eta emakumeentzako omenaldia, Artxandako «Aterpe 1936» eskulturaren aurrean.
- ekainak 23, astelehena: Ondarearen Europako Jardunaldien Bizkaiko 25. urteurrenean parte hartu zuen Fundazioak.
- irailak 21, igandea: Zirardamendin (Aiastia-San Migel-Elgoibar) eroritako gudariei eta milizianoei omenaldia. Elgoibarko Udalak antolatutako ekitaldia.

- irailak 23, asteartea: DEIA egunkariak antolatutako Ekonomiako Euskadi Sarien banaketan parte hartu zuen Fundazioak.
- urriak 11, larunbata: Manuel Irujo Sariaren XXI. edizioan parte hartu zuen Fundazioak Lizarran (Aranzadi Zientzia Elkarteari eman zioten saria).
- azaroak 23, igandea: Sabino Aranaren heriotzaren 122. urteurrenean parte hartu zuen Fundazioak, Sukarrietan.

11 EMAITZEN BALORAZIOA

2025ean egindako jardueren balantzeari esker, Sabino Arana Fundazioak, Agiritegiak eta Euskal Abertzaletasunaren Museoak egindako lanaren oso balorazio positiboa egin daiteke. Urtean bultzatutako ekimen ugariak erakunde sendoa erakusten dute, proiektu kultural eta historiko koherentea darabilena, zorrotasunean, zerbitzu publikorako bokazioan eta euskal gizartearekiko konpromisoan engaiatuta.

Dokumentu-ondarearen ikerketan, kontserbazioan eta kudeaketan egindako jarduera biziak agerian jartzen du Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren sendotasuna, gure historia garaikidea aztertzeke ezinbesteko erreferentea delarik. Funtzen hazkundeak, kontsulten gorakadak eta erabiltzaileen profilen aniztasunak argiro erakusten dute, Agiritegiaren erabilgarritasun soziala ez ezik, ikertzaileek, erakundeek eta herritarrek Fundazioaren lanean jartzen duten konfiantza ere. Lan hori, diskretua baina funtsezkoa, funtsezko ekarpena da memoria demokratikoa eta iraganaren ezagutza kritikoa sustatzeko.

Bestalde, Euskal Abertzaletasunaren Museoak zabaltze-, elkartze- eta hausnartze-ikuspegiak indartu egin ditu joan den ekitaldian, memoria historikoa egungo interes eta kezkekin lotzeko xedez. Antolatutako jardueren gaikako aniztasunak eta parte hartzen duten ahotsen aniztasunak ahalbidetu dute, zalantza barik, euskal historia, kultura eta pentsamendua hainbat publikotara hurreratzea, gure ondare kolektiboaren irakurketa irekia, eguneratua eta gizarte-arloan konprometitua bultzatuz.

Fundazioak, oro har, programazio sendo eta jarraitua izan du, urteurren gogoangarrien oroimena eta gaur egungo erronken azterketa uztartzen jakin duena. Urtean zehar egindako mintegi, hitzaldi eta eztabaida-zikloek pentsamendu anitzeko bilgunetzat indartu dute Sabino Arana Fundazioa, non historia oraina ulertzeko eta etorkizuna proiektatzeko tresna gisa balio duen. Garrantzi berezia izan dute memoria demokratikoa, gizarte-kohesioa, berdintasuna, nazioarteko lankidetzeta eta gure garaiko erronka etiko eta kulturalak jorratu dituzten jarduerak.

Era berean, aipatzekoa da dibulgazioarekiko eta komunikazioarekiko konpromiso etengabea, argitalpenen, hedabideekiko lankidetzeta eta eduki digitalen bidez, Fundazioaren jardueren irismen soziala zabaltzeko aukera eman baitute. Lan hori erabakigarria da ezagutza historiko eta kulturala herritarrengana hurbiltzeko, Fundazioaren eta haren zerbitzuko dagoen gizartearen arteko lotura sendotuz.

Azkenik, 2025ean metatutako eskarmentuak berretsi digu garrantzi handikoa dela daborduko sendotu diren lan-ildoetan sakontzen jarraitu behar dugula, eta, aldi berean, lankidetzako, partaidetzako eta hausnarketa partekatuko espazio berriak ireki behar direla. Testuinguru sozial aldakorrean, Sabino Arana Fundazioak memoria, ezagutza eta elkarrizketa lantzeko lekua izateko bokazioari eusten dio, iragana babesteaz eta etorkizun kontzienteago, pluralago eta demokratikoagoa eraikitzeaz engaiatuta dagoela.

12 HIZKUNTZA- ETA GENERO-POLITIKEN ADIERAZPENA

Esan beharra dago Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea dela fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioan euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko neurriak hartzen ditugula, euskararen dimentsio bikoitza gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko zatitzat hartuta.

Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren arabera, «Ezagutzaren arloan oraindik urrats sendoak eman behar badira ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izango da».

Ondorioz, proiektu hau bat dator ESEPEk (orain, AROAk) jasotzen duen helburu nagusiarekin, bai eta helburua lortzeko proposatzen dituen zeharkako ildoekin ere, hau da, «Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragitea funtsezkoa da, noski, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak eskaintzea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategia bat eskaintzea, hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko oinarritzko azalpenak gizarteratzea, ezagutzatik hizkuntzaren erabilerarako jauzia egiten lagunduko duten jarduerak antolatzea, hizkuntzaren normalizazioaren arloan lidergoa izatea, eta abar».

13 ERANSKINA:

2025ean EGINDAKOAK

- urtarrilak 15, asteartea: Sabino Arana Sarien XXXVI. edizioaren aurkezpena.
- urtarrilak 26, igandea: Sabino Arana Sarien XXXVI. Edizioaren ekitaldia, Bilboko Arriaga antzokian.
- urtarrilak 30, osteguna: EAB erakusketaren inaugurazioa Urduñan.
- otsailak 26, asteazkena: «Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren kargu-hartzearen 40. urteurrena» mahai-ingurua. Jon Azua, Mari Karmen Garmendia eta Juan Ramon Gebara sailburu ohiek, Josu Ortuondo EBBko orduko diruzainak, Pilar Garcia de Salazar Lehendakariaren idazkariak eta Jon Goikolea kazetariak (moderatzailerak) hartu dute parte.
- martxoak 6, osteguna: «Maurice Ravel: euskal arima zuen konpositorea» hitzaldia, Itxaso Sainz de la Maza Musikeneko Irakaskuntza Plangintzako zuzendariorde eta irakaslearen eskutik.
- martxoak 8, larunbata: Castelaoren omenaldia zuten parte hartu genuen Txurdinagako Europa parkean.
- martxoak 10, astelehena: Paris 2024ko euskal paralinpikoek «Kirolariak» erakusketa bisitatuko dute Euskal Abertzaletasunaren Museoa.
- martxoak 11, asteartea: «Mar de Sami» dokumentalaren emanaldia eta solasaldia Zigor Egia dokumentalaren ekoizle eta gidoilariaren eskutik.
- martxoak 13, asteazkena: «Beijingeko adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren 30. urteurrena». Lau protagonistaren testigantzak. Arantza Zugasti, Txaro Beobide, Miren Gallarzagaitia eta Sonia Hernandoren eskutik (moderatzailerak).
- martxoak 19, asteazkena: «Arzelus Arrieta'tar Amale. Nire oroimenak» liburuaren aurkezpena, Donostian, Jonan Zinkunegi Arzelus eta Gotzon Lobera Revillaren eskutik.
- martxoak 20, osteguna: Mahai-ingurua: Caracasko El Paraisoko Euskal Etxearen 75. urteurrena. Partaideak: Ibane Azpirixaga, Pedro Javier Arriaga, Jon Mikel Olabarrieta, Nerea Olabarrieta, Gonzalo Attias eta Estepan Aldamiz-Etxebarria.
- martxoak 26, asteazkena: *Bizi Cycle Tours* ekimenaren aurkezpena Virginia Berasategi kirolari eta triatleta ohiaren eskutik.
- martxoak 31, astelehena: Euskaltzaindiaren euskararen corpus berriaren aurkezpenean parte hartzea.

- apirilak 1, asteartea: «EAB 100 urte. Emakumeak Aberria eginez» erakusketaren aurkezpena Durangoko San Agustin Kultur Etxean.
- apirilak 3, osteguna: EAJ-PNV alderdiaren 130. urteurrenako hitzaldi-zikloa. «Sekretupekoak». Euskal abertzaletasunaren sorrera (1895-1903). Hizlariak: Joseba Agirreazkuenaga, Historia Garaikideko katedraduna; eta Luis de Gezala, Historia Garaikideko doktorea.
- apirilak 5, larunbata: Lekeitioko hiriaren fundazioaren 7. mendeurrenako ekitaldietan parte hartzea. Iñaki Goiogana historialariak parte hartu zuen.
- apirilak 8, asteartea: «*Transatlántica* konpainiaren itsasontziak, gerrako haurrak eta antibiotikoen etorrera». Hizlariak: Javier Garaizar, doktorea eta Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiako kidea; eta Juan Carlos Díez, Kanarietako Nabigazio Zientzien Akademiako presidentea.
- apirilak 10, osteguna: «Erramu-koroak, haritz-hostoak. Gernika batailoien epopeia (1945)». Hizlaria: Aitor Miñambres, Berangoko Burdin Hesien Oroimen Museoaren zuzendaria.
- apirilak 11, ostirala: *Euskal Herria Batera* ekimenaren kultur ekitaldian parte hartzea Donostiako Kursaal jauregian.
- apirilak 14, astelehena: Bediaga komandantearen familiak Saibigain mendiko batailan 1937an eroritako gudariei eta milizianoei antolatutako omenaldian parte hartzea.
- apirilak 26, larunbata: Gernikako bonbardaketaren 88. urteurrena gogoratzeko ekitaldietan parte hartzea.
- apirilak 30, asteazkena: *Hermes* aldizkariaren 80. zenbakiaren argitalpena: *Ardanza. Hace 40 años*.
- maiatzak 3, larunbata: Nazismoaren eremuetara deportatutako euskaldunak eta haien familiak omentzearen kariaz, Gogorak antolatutako «Deportazioaren Memoria» ekitaldian parte hartzea, Ficoban.
- maiatzak 6, asteartea: Jonan Zinkunegiren «Arzelus Arrieta'tar Amale. Nere oroimenak» iburuaren aurkezpena, Bilbon.
- maiatzak 8, osteguna: *Eusko Abendaren Ereserkijaren lehen hitzen 120. urteurrenean. Himnoak: ederra eta beharra. Arriskuak* hitzaldia, Jose Ignazio Ansorena *Peter* eta *Xaguak* txistulari-taldearekin.
- maiatzak 13, asteartea: Garapenerako nazioarteko lankidetzari buruzko hitzaldi-zikloa. «Nazioarteko lankidetzak gatazkan dauden herrialdeetan», Irantzu Mendia UPV/EHUko Hegoa-Nazioarteko Lankidetzak eta Garapenera buruzko Azterlanen Institutuko zuzendari eta ikertzailearen eskutik.
- maiatzak 20, asteartea: «Mugarik gabeko zinema» zikloa. Olaia Peñas eta Juantxu Alvarezen *La vida en pausa* dokumentalaren emanaldia, Susana Miravallesek zuzendua. Olaia Peñasen istorioa kontatzen du dokumentalak. Olaiak fibrosi kistikoa duen gaixoa da, eta

- Estatuan biriketako transplantea jaso duen lehen pertsonetako bat.
- maiatzak 22, osteguna: EAJ-PNV alderdiaren 130. urteurrenari lotutako hitzaldi-zikloa. «Euskal abertzaletasuna Bigarren Errepublikan. Alderdiak, egiturak, mugimenduak». Hizlaria: Mikel Aizpuru, EHUko Historia Garaikideko katedraduna.
- maiatzak 23, ostirala: Lauaxetaren jaiotzaren 120. urteurreneko omenaldian parte hartzea Laukizen, Bizkaiko Foru Aldundiak olerkariaren gomutan paratutako erakusketaren aurkezpenean.
- maiatzak 26, astelehena: Europako Demokraten Institutuak Napolin (Italia) antolatutako «Kulturaren, kultura-diplomaziaren eta sormen-industriren eginkizun eraldatzailea» hitzaldian parte hartzea.
- maiatzak 30, ostirala: Mintegia Oreki Fundazioarekin lankidetzan: «Komunitategintzaz, zaintzaren oinarri sendoen bila». Parte-hartzaileak: Nerea Melgosa, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua; Mari Karmen Garmendia, Matia Fundazioko presidentea; Martin Zuñiga, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea; eta Sergio Murillo; Igurko Taldeko Negozio Garapeneko eta Funtsezko Prozesuetako zuzendaria.
- ekainak 2, astelehena: Euskaltel Fundazioaren 25. urteurrenaren ospakizunean parte hartzea.
- ekainak 3, asteartea: Daniel Innerarityren eta Humberto Bustincereren arteko solasaldia: «Adimen artifiziala ikuspegi etiko eta humanistatik», Iruñeko Tres Reyes hotelean.
- ekainak 5, osteguna: Garapenerako nazioarteko lankidetzari buruzko hitzaldi-zikloa. «Nazioarteko lankidetzeta eta giza eskubideak», Silvia de Gregorio Euskadiko GGKEen Koordinakundearen genero-arduradunarekin eta sektorea indartzeko arduradunarekin, eta Irene Molero Euskadiko GGKEen Koordinakundeko koordinatzaile nagusiarekin.
- ekainak 10, asteartea: «Garapena finantzatzea tokiko/lurraldeko ikuspegiz». Sevillako 2025eko goi-bileraren estatu azpiko dimentsioa. Parte-hartzaileak: Javier Cortés, Eusko Jaurlaritzako eLankidetzaren zuzendaria; eta Sébastien Vauzelle, 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritzako burua.
- ekainak 12, osteguna: EAJ-PNV alderdiaren 130. urteurreneko hitzaldi-zikloa. «EAJ-PNV: XXI. menderako iparrorratza». Hizlaria: Aitor Esteban, EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidentea.
- ekainak 19, osteguna: Hitzaldi-zikloa Helduak elkartearekin lanidetzan. «Etxeko suteen prebentzioa», OPRako presidente Javier Larrearen eskutik.

- ekainak 22, igandea: Gudariei, milizianoei eta Gerra Zibileko emakumeei omenaldia Artxandako «Aterpe 1936» eskulturaren aurrean.
- ekainak 23, astelehena: Ondarearen Europako Jardunaldien Bizkaiko antolaketaren 25. urteurrenean parte hartzea. Bizkaiko Foru Aldundian.
- irailak 1, astelehena: Hermesen 81. zenbakiaren argitalpena: EAJ-PNV alderdiaren 130. urteurrena.
- irailak 18, osteguna: «Lauaxeta y la red de la lengua vasca en el periodismo en euskera antes de la guerra – Lauaxeta eta euskararen sarea gerra aurreko euskarazko kazetaritzan», Andres Urrutia euskaltzainburuaren eskutik.
- irailak 21, igandea: Zirardamendin (Aiastia-San Miguel-Elgoibar) hildako gudariei eta milizianoei omenaldia. Elgoibarko Udalak antolatutako ekitaldia.
- irailak 25, osteguna: «Tokikotik globalerantz: garapen iraunkorrerako finantzaketa tokikotzea aldaketa-sasoi batean» hitzaldia, Sébastien Vauzelle NBEko 2030 Tokiko Koalizioko Idazkaritzako buruaren eta Javier Cortés eLankidetzako zuzendariaren eskutik.
- irailak 23, asteartea: Deia egunkariak antolatutako Ekonomiako Euskadi Sarien banaketan parte hartzea.
- urriak 2, osteguna: Alazne Díez Muñiz antropologo eta soziologoaren «Oroimenaren Laharrak, Sustriak eta Fruituak» liburuaren aurkezpena.
- urriak 11, larunbata: Lizarrako Manuel Irujo Sariaren XXI. edizioan parte hartzea (Aranzadi Zientzia Elkarteari eman zioten saria).
- urriak 16, osteguna: «Pentsioen sistema publikoen indarguneak eta ahuleziak» hitzaldia, Emilio Olabarriaren eskutik.
- urriak 23, osteguna: «Gorde ezazue sortzailearen memoria. Sabindiar Batzaren 75. urteurrena», Luis de Gezala historialariaren eskutik.
- urriak 24, ostirala: Prebentziozko Kontserbazioari buruzko VI. Jardunaldiak. Hitzaldia: «Prebentziozko kontserbazioa Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoko bilduman», Begoña Aristegi Arte Ederretako lizentziaduna eta prebentziozko kontserbazioan espezializatuaren eskutik. Maisutza-eskola: «Nola egin enbalaje espezifikoa museoan dauden objektuetarako».
- urriak 30, osteguna: «Nazioarteko lankidetzazko feminista» hitzaldia, Gurutze Aizpurua Mundu Bakean antolakundaren Garapen Proiektuen koordinatzaile eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Gune Feministako kidearen eskutik.
- azaroak 6, osteguna: «Sabino Arana Fundazioaren omenaldia Alemaniara deportatutako jeltzaleei (1940-1945)», Historia Garaikideko doktore Etxahun Galparsoren eskutik.

- azaroak 10, astelehena: «Adimen artifiziala ikuspegi etiko eta humanistatik» hitzaldia, Daniel Innerarity eta Humberto Bustincereren eskutik. Moderatzailea: Miriam Duque.
- azaroak 12, asteazkena: «Artxiboak, diktaduraren beste biktimak, Franco hil eta 50 urtera». Hizlariak: Josep Cruanyes, Comissió de la Dignitat erakundeko presidentea; Fernando Mikelarena, historialaria eta Zaragozako Unibertsitateko irakasle titularra; Sergio Gálvez, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioko Artxibo Nagusiko zerbitzuburua; Javier Bucés, UPNAko irakasle laguntzailea/Aranzadi Zientzia Elkarteko historialaria; eta Eduardo Jauregi, Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Museoa.
- azaroak 17, astelehena: 25 urte geroago: EB-Mercosur hitzarmenaren erronkak eta aukerak, Oihane Agirregoitia eurodiputatuaren eskutik.
- azaroak 20, osteguna: «Franco duela mende erdi hil zela diote», Txema Monteroren eskutik.
- azaroak 23, igandea: Sabino Aranaren heriotzaren 122. urteurrena gogoratzeko ekitaldia, Sukarrietan.
- azaroak 26, asteazkena: *Gazte ekintzaileak* zikloaren barruko hitzaldia, Gabriela Sagarminagaren eskutik.
- abenduak 2, asteartea: *Liburuaren txokoa* zikloaren barruko hitzaldia, Elisa Ruedaren eskutik. «Markina-Xemein—Vitoria-Gasteiz—Olerkia».
- abenduak 18, osteguna: «Hizkuntza harrerarako ardatz batzuk» mintegia, Euskaltzaindiarekin lankidetzan.



Mandobide 6 – 3. sol. 48007 BILBAO